



ARGIA

IRUN-HENDAIA MUGA

Harresi bat gehiago bidean

30-39. orriak

Poliziaren kontrolari iskin
egin eta Lapurdin sartu berri
den Afrikako migratzailea.



**Zemmour,
komunikabideen
hautagaia Frantzian**

12 | ESKUIN MUTURRA



**"COVIDak legitimatu
du txinatarren
aurkako arrazakeria"**

14 | PALOMA CHEN



**"Osasun
publikoa
akabatu dute"**

24 | OSASUNA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #269
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



COVID PASEA ZERTARAKO?

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
GARI GARAIALDE

Iritziak

- 19 | DAVID BOU
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | LAURA PENAGOS
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | MIKEL GOMEZ

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
LUCIA PÀMPOLS
- 54 | BERANDUEGI



HALA BEDI

24 | OSASUNEN LEHEN MAILAKO ARRETA

Osakidetzako familia mediku batengana jo du Estitxu Eizagirrek, kontsulta hau egitera: zein lanek kolapsatu dute zehazki lehen mailako arreta? Pandemiaren kudeaketak eragindako sintoma berriak eta egoerak larriagotu dituen gaitz kronikoak azaldu dizkigu, osasun publikoa ahuldu duten garai honetan.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Zemmour "polemista" lehen lerroan jarri dute hedabideek, faxista bat boterean jartzeko arriskua hartuz

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | PALOMA CHEN

"Hizkuntza bakarra daukat, eta ez da nirea"

Miren Artetxe

30 | GIZARTEA | ARGAZKI ERREPORTAJEA

Hil ala biziko muga Euskal Herrian

Jenofa Berhokoirigoin eta
Gari Garaialde

44 | KULTURA

Energia kolektiboa pizteko performance bat

Danele Sarriugarte

Jabetza

Komunikazio Biziagora
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOAK

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Txikizio *friendly*

Solaria multinazionalak Nafarroa Garaiko Erreniegako 300 hektareako poligono fotovoltaikoa eraiki nahi du. Hau da, hango lur sail ederren gainean 600 bat futbol-zelai eguzki plakaz beteta. Adios herriaren lur guztien %40 eta ereingarria den %95 plaka bihurtuta. Paisaiarekin batera, natura eta fauna erabat eraldatuz. Erreniega Salba Dezagun plataformak ostegunean 25.000 sinadura baino gehiago aurkeztu ditu megaparker horien aurka. Tamalez, ez da salbuespena. 60 proiektu eoliko eta fotovoltaiko baino gehiago daude Nafarroan ate joka. Eguzkia eta haizearen izenean txikizioa atseginagoa delakoan, "berriztagarria" etiketapean dena balio duelakoan. Irudian, egunsentia Erreniegan.

 JESÚS DIGES / EPA  AXIER LOPEZ



Presoekin 'Kafe expreso' bat, maitasunetik eta umoretik

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Presoei zuzendutako irratsaio bat jaioko da abenduaren 30ean, Hala Bedin sortua baina irrati gehiagotan eta interneten ere emango dena, uhinak Euskal Herriko espetze eta euskal preso guztietara hedatzea helburu. Espetxearen eta kalearen arteko zubiak indartu nahi ditu *Kafe expreso*k, maitasuna erregai eta umorea lanabes.

Espetxearekin harremana dute irratsaioako kide Miren, Ekaitz, Ruben eta Ainhoa gasteiztarrek. Izan murruek barnean bizi izan direlako garai batean, izan murrura hurbildu direlako hainbatetan lagunak edo burkideak bisitatzen, izan presoek aldeko ekimenetan parte hartu dutelako. Irratsaioaren ideia, hain zuzen ere, Zaballatik eman zien euskal preso politikoei batek.

Zergatik umoretik? "Nahikoa drama dago jada espetxean", dio Mirenek. Ordubetez ihes egiteko aukera eman nahi diete presoek, eta barrea arma eraginkorra da horretarako. Beste arrazoi bat gaineratu du Ekaitzek: "Presoen esparruan tentsioak izan dira azken hamar urteetan, hori gainditu eta guztiontzako irratsaioa

egin nahi dugu". Espetxeen aurka eta presoek alde dauden guztiontzako, alegia. "Gure ingurune naturala preso politikoei da, baina irratsaioa preso guztiei zuzenduta dago", azaldu du Mirenek. Gutun edo senideen bitartez euskal preso poli-

"Presoen esparruan tentsioak izan dira azken hamar urteetan, hori gainditu eta guztiontzako irratsaioa egin nahi dugu"

tikoei irratsaioaren berri ematen hasiak dira. Salhaketa elkartarekin hitz egin dute bere sarean informazioa zabaldu dezan. Salhaketak berak urteak daramatza Hala Bedin presoentzako *La Pila* irratsaioa egiten, berriki estreinatu da Naiz irratiaren *Etixerako kunda*, Patxi Urangaren eskutik. "Zenbat eta gehiago, hobeto", diote *Kafe expreso*ko kideek.

BARRUTIK KANPORA; KANPOTIK BARRURA

Hainbat atal izango ditu irratsaioak: *Elhuir hiztegia* –"espetzeko hitzak kalekooi helarazteko, eta kaleko hitz berriak presoek ezagutzera emateko"–; *Pasabide sekretuak* –"Anekdotekin eta ihesaldien efemerideekin"; *Ihes egiteko soinuak* –"Grabatuko ditugu kaleko obrak, azokak, taberna giroa..."–; eta beste. Edonola dela, ardatza kaletik zein barrutik heltzen diren mezuak izatea dute helburu: "Garrantzitsuen jendea animatzea da, bai barrutik, bai kanpotik, ekarpenak egiten", dio Mirenek. Abestiak kantatu, eskatu edo eskaini, anekdotak kontatu, mezuak helarazi... dena da balekoa. "Politikoa litzateke gauza praktikoetarako ere erabiltzea: 'Urlia, betaurrekoak heldu dira jada, asteburuko paketeen sartuko dizkizugu'", dio Ekaitzek.

Hainbat bide jarri dituzte ekarpenak jasotzeko: erantzungailua (945.12.27.38), gutun postalentzako helbidea (Hala Bedi Irratia, Bueno Monreal kalea 16 behea –Gasteiz, Twitter kontua (@kafeexpreso) eta maila (kafeexpreso@halabedi.eus).

NOLA ENTZUN KAFE EXPRESO

Oraindik ere irratsaioaren emisio sarea zabaltzeko lanean murgilduta daude, baina honezkero lotuak dituzte zenbait bide. Hala Bedi irrati libretik emango dute irratsaioa, ostegunetan 15:00etan (107.4; halabedi.eus). Bizkaiko 97 Irratiak (97.0; 97irrati.info) eta Sakanako Eztandak (107.6; eztanda.com) emisioarekin bat egingo dute zuzenean, eta Naiz irratiak igandean emango du, 22:00etan (93.8; irrati.naiz.eus). Zaballa, Iruñea, Martutene eta Basauriko presoek zuzenean entzun ahal izango dute irratsaioa, hortaz. Internet bidez entzuteko aukera ere izango da.

Estreinako irratsaioa estudioetan ez, Hala Bedi tabernan egingo dute, abenduaren 30ean. Presoen senideak eta lagunak gonbidatu dituzte propio, "baina bertaratzen den edonor izango da ongi etorria". Askatasun zaporeko kafe bat hartu nahi? ●



HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Erroma



ARITZ GALARRAGA

Torino ez da Erroma, Erroma ez da Torino, baina Natalia Ginzburgek bezala ez luke atzera egingo Pier Paolo Pasolinik gazte, haur garaira. Mundu guztiari esaten omen zion, aukera zuen guztietan, Erroma zela munduko hiririk ederrena. Ezagutzen zituen hirietatik, hura zen bizileku nahi zue-na: are gehiago, hitzok bildu zituen artikulua idatzi zuenean, 1957an, ez zuen bere burua beste inon bizitzen irudikatzen. Amesgaiztorik handiena litzateke Erroma abandonatu eta Italia iparraldera itzultzea. Zergatik da Erroma hain hiri ederra, ordea? Zerk egiten du hiri bat eder, eta ondorioz erakargarri, zerk beste hiri bat zatar, arbuigarri? Erromarena litzateke edertasun arraro bat, edertasun ederregi bat, itsusitasuna ere bere baitan hartuko lukeena. Izan ere, ez ote daude edertasuna eta itsusitasuna elkarri lotuta? Ez dira ugari soilik eder, soilik itsusi diren lekuak. Pasolini: Erroma litzateke munduko hiririk ederrena, aldi berean ez balitz munduko hiririk itsusiena?

1950eko urtarrilaren 28an iritsi da Pasolini amarekin Erromara, aita atzean Friuliko Casarsan lotan utzita. Periferiako auzo pobre bat du bizileku, Ponte Mammolo, Rebibbiako kartzela ondoko etxe bat teilaturik ere gabea. Baina hortxe ezagutuko ditu gerora lehengai izango dituen aldirietako langilegoa, bere hizkera, kultura, bizitasun bortitza. Hortxe eta Tiber ertzeko maitasunetan. *Ragazzi di vita* (1955) eleberrian jaulkiko ditu estreinako aldiz. Erromako bizitza intelektual eta artistikoan leku egingo du pixkanaka, Piazza Navona, Piazza del Popolo, Campo de' Fiori, zinema egiten hasiko da: *Accatone* (1961), *Mamma Roma* (1962), *La ricotta* (1963), hiru horiek osatzen dute Pasoliniren trilogia erromatarra. Eleberri, film, lan horietan guztietan aurki dezakegu Erromaren gaiztotasun sendaezina, eta Erromaren ontasun aingerutarra; guztia arima bakarrean, Erroma den arima bakan horretan. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

KOLAPSOA?

PRIBATIZAZIOA?

MURRIZKETAK?

LASSSSAI!
OSAKIDETZAN
DENA
KONTROLPEAN
DUGU!



ADUR

COVID-19

Milaka herritar atera da kalera Donostian COVID pasaportearen aurka. Bizitza plataformak deituta egin da manifestazioa, "COVID pasearen inposaketari ez" lemak elkartuta. "Diskriminazioa eta bazterkeria bultzatzen du", salatu dute.

Bertsolaritza

Nerea Ibarzabal Salegi da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako aurtengo txapelduna. Ia 4.000 ikus-entzule elkartu dituen finalean, Joseba Etxebarriak eta Moises Enbeitak jantzi diote txapela Markina-Xemeingo bertsolariari. Jone Uriagaz jokatu du buruz buruko.



Paretaren kontra



AINHOA ETXAIDE
AMORROTU

Jakina da eskuduntzen auzia erabaki-garria dela arlo ekonomikoan. Botere banaketa zehazten omen du. Eta zorrotzagoak bagara, boterea nork duen, eta beraz, nork ez duen ere ezartzen duela esan dezakegu. Eskuduntza nagusiak estatuek beretzat gorde dituzte, baina kapitalak du eredu ekonomikoaz erabakitzeke boterea, ez euskal langileok.

Gutxiago hitz egiten da auziak barne mailan duen garrantziaz, eta korapiloa ez da txikia. Euskal Herria aintzat hartuz gero, gure etorkizuna ziurtatzeko helburuarekin pentsatutako politikak hiru lurralde administratiboetan garatzea da nazio politikak egiteko bideetako bat. Euskal Herria gune ekonomiko eta sozial gisa egituratzeko eta krisi sistemikoari aurre egingo dion eredia sustatzeko aukera erreala daukagu. Gaur gaurkoz borondate falta da arazo nagusia, baina nahi izanez gero ere, EAEko eskuduntza banaketa traba garrantzitsua izango litzateke.

Lehen mailako erronka nazionala dugu zaintza lanak berrantolatuko dituen eredia pentsatzea eta sistema eraikitzea. Eta arazo bat da, zalantzarik gabe, herrien gain zama gehiegi eta bitarteko gutxi jartzen dituen sistema dugulako orain, herrialdeen arteko aldeak geroz eta handiagoak izatea egiten duena. Eusko Jaurlaritzari zentrala den gaiaren eztabaidatik ihes egiteko aukera ematen dio sistema honek. Fiskalitateaz ere antzeko gogoeta egin dezakegu.

Korapiloa eztabaida politiko eta sozialaren bidez askatzea eskatu dugun bakoitzean paretaren kontra jo dugu. Eta hara nondik, Tapia izan da paretaren soilik guretzat dagoela erakutsi diguna. Jaurlaritzaren nahia beste euskarririk ez duen lege arrunt baten bidez, botere ekonomikoari eman dio eskuduntzen gaur arteko sistema bere mesedetan aldatzeko aukera. ●



Pasaportea, agintariei

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

CCOVID pasaporteak ez du osasun kontuekin zerikusirik". Osasun sailburuordearen hitzak dira, berdin dio euskal lurraldeetako zein gobernutakoak. Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko kide Txetxu Ausinen arabera pasaportea ez da eraginkorra kutsadurak ekiditeko. Oso herritar gutxi dira txertatu gabe daudenak, beraz neurriak eragiten diena. Txertatu gabe egoteak ez du esan nahi kutsatuta zaudenik, eta, batez ere, txertatuta egoteak ez du esan nahi kutsatuta ez zaudenik eta kutsatu ezin dezakezunik. Zer dago erdian, orduan? "Zibismoa". Sailburuordearen hitzak, berriz ere. Agintarien zibismoari, ordea, diziplinatze kiratsa dario. Pasaporteak galbide autoritarioan sakontzearekin du zerikusia, ez zaintzarekin, eta, "zer edo zer" egiten denaren itxura ematearekin. Baina, batez ere, eztabaida publikoa kaiolatzearekin.

Zertaz hitz egiten dugu? "Pasaportea bai/ez" eztabaida "txertoa bai/ez" eztabaida kutsatuaren aldaera bat da. Eztabaida, ez ikuspegi komunitario batetik –interresgarria litzatekeena–, baizik dikotomiko eta punitibotik.

Are garrantzitsuagoa: zertaz ez dugu hitz egiten? Erizain lagun batek anbulatorioko lana utzi du, lan zamari eta zama emozionalari eutsi ezinik. Baina medikuak kontratatzeaz, hitz erdirik ez. Lagun irakasle batek asteak daramatza 8:00etatik 20:00etara lanean, konstituzioaren zubia ere lanean eman zuen. Ez irakaskuntzan, positiboak kudeatzen baizik, hogeitak hamaika autokonfinatu baitituzte; autokonfinatu, Osakidetzaren aztarnarien berririk ez dutelako. Baina aztarnari ezaz, hitz laurdenik ez. Hilabeteotako nire jarduera arduragabeena eta arrisku-tsuen garraio publikoa hartzea izan da. Iragan astean Donostiatik zetorren autobusa jendez lepo heldu zen Gasteizera, hustu, eta bost minututan bete genuen berriz ere kontrako bidea egin behar genuenok. Garraio publikoa indartzeaz, hitz hamaseirenik ez. Hori bai, pasaportea ezarri den aste berean lehen arreta "kasu larrietara" mugatzea iragarri zuen Gotzone Sagardui suminduta zuzendu zaie txertatu ez direnei: "Ez jolastu besteen bizitzarekin!". Herritarrokin nekropolitika egiten duen Osasun sailburua, herritarroi kargu hartzen bizitzaren izenean.

Baina... zer edo zer aldatzen ari bada? Pasaportea eskatzen ez duten tabernetan egon naiz egunotan; txertatuta egonik pasaportea ez deskargatzea erabaki duten pertsonen berri dut; herri mugimendu batzuk publikoki adierazi edo mobilizatu dira pasaportearen aurka eta osasun publikoa indartzearen alde; espazio autogestionatu batean asanblada egin dute eztabaidatzeko: pasaportea eskatu, ez eskatu publikoki jakinarazi gabe, edo ez eskatu desobedientzia ariketa publikoa eginaz. Beste une batzuetan sumatu ez dudana haserre nabari dut. Norabide interresgarri batean antolatuko balitz?

Urrun gaude horretatik oraingo. Boteretik inposaturiko eztabaida markoan kaiolatuta jarraitzen dugu: behekoen artean, are ezkertiarren artean mokoka, logika indibidualista eta punitibistak birsortuz eta normalduz. Antolatu ditzagun beldurra eta amorrua gora begiratzuz, balore komunitario eta eraldatzaileetatik. Denon osasun fisiko, emozional eta politikoarengatik: gure artean pasaportetik ez; pasaportea gure agintariei (irteerakoa soilik). ●

%15

Hego Euskal Herriko gazteen %15 baino gutxiago dago emantzipatuta, prekaritatea handitu delako. Azken 23 urtetako tasarik baxuenak izan dira. Espainiako Estatuan, bakarrik bizi den gazteak soldataren %81,9 xahutzen du alokairuan, batez beste.



%30

%30 hazi da suizidio tasa EAEn, aurreko urtearekin alderatuta. Nafarroan apur bat jaitsi da tasa. Espainiako Estatuan batez beste egunean hamaika pertsonak egin zuten beren buruaz beste 2020an.

13

pertsonari egin diote eutanasia EAEn, alegia hiltzeko laguntza medikoa eman diote, eta 34k eskatu dute, Eutanasiaren Legea ekainean indarrean sartu zenetik. Eusko Jaurlaritzak eman ditu datuak. Osasun arloko 5.000 langilek prestakuntza jaso dute gaiaren inguruan.

“Ziurrenik beharrezkoa izango da laugarren dosi bat”

UGUR SAHIN

BioNTech/Pfizer enpresako fundatzaile eta txerto horren sortzailea da Ugur Sahin doktorea.

DER SPIEGEL (2021-12-10)



“Ebidentzia zientifikoak daude pentsatzera garamatzatenak txertoaren hirugarren dosia agian ez dela beharrezkoa”

FERNANDO SIMÓN

Espainiako Osasun Larrialdietarako Koordinazio Zentroaren zuzendaria.

2021-12-15



“EZ DAGO BALIABIDE EGOKIRIK, AZKEN UHOLDEAN AGERIAN GERATU DEN BEZALA”

NAFARROAKO URETAKO ERRESKATE TALDEA

2021-12-13

Bazterkeria digitala COVID garaian



DIANA FRANCO

Bizitza aurrera ateratzea eta bizitza bera gozatzea da askoren espektatiba handiena. Ongizate hori mantentzeak, sortu dugun gizarte honetan, kudeaketa asko egitea suposatzen du ordea, erakunde publiko zein pribatuekin. Eta hori askok ez dugu oraindik behar bezala barneratuta. Eraldaketa digitalak aurrera darrai, eta ondorioz kudeaketak egiteko moduak. Gaurkoan administrazioaren eraldaketa digitalak ekarri dituen zenbait arazotan jarriko dut begirada, arrisku egoeran dauden pertsonen lan egiten duten oinarriko esku-hartze zerbitzuetan ikusiak.

COVIDa hasi zenetik erakunde publikoen arreta zerbitzua aldatu egin da, aurrez aurreko arreta eredua desagertzen ari da, eta beste aldean pertsona bat aurkitzeko zenbait prozesu digital egin behar dituzu: aurretiko hitzorduak, aurretiko galdetegiak, autokudeaketak... Pertsona gutxiago, prozesu automatizatu gehiago. Baina bitartean gure gizartean errealtate ugari ditugu: irakurtzen ez dakien jendea, modu irregularrean dagoen jendea eta datu baseetan ez dagoena, hizkuntza ulertzen ez duena... Bestalde, askok ez du ulertzen administrazioaren antolaketa konpetentzia ezberdinen kudeaketari lotua (lana, segurtasun soziala, ogasuna, osasuna, hezkuntza...). Zelan egiten dituzte kudeaketak orduan bazterkeria egoeran daudenek? Kasu batzuetan, euren arazoa negozio bide duten pertsona eta erakundeengana joaz, hau da, kudeaketak egiteko kobratzen dutenengan: COVID ziurtagiria lortzeko, BAKQ edo CI@ave ziurtagiriak lortzeko... dakartzan segurtasun arriskuekin.

Beste askok oinarriko esku-hartze zerbitzuetara jotzen du. Konfiantzazko pertsona baten laguntza bilatzen dute. Eragile hauek administrazioarekin kudeaketa digitalak egun batetik bestera euren lanetara gehitu direla ohartzen hasi direlarik, pertsonen arteko arretaren beharra ez da COVIDarekin desagertu, lekuz aldatu da. Arazoak marjinala dirudi gure gizarte handian, baina handia da bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzat eta eragile hauentzat. Pertsonak eta bizitza erdigunean jarriko dituen digitalizazio eredu baten bidean lan egin behar dugu. ●

Mozal politagoa

AXIER LOPEZ

Mozal Legea izan da azken hamarkada honetan arbuio kuantitatibo eta kualitatibo handiena eragin duen legea, bai Espainiako Estatuan, bai nazioartean. Aktore politiko eta sozialen gehien-go zabalak, ikuspegi kritiko askotatik, errefusatu zuen araudia, bakar-bakarrik lagata legearen sortzaileak: PP eta Poliziaren sindikatuak.

Sei urte baino gehiago pasa dira indarrean sartu zenetik. Mozal Legearen bitartez herritarrek masiboki zigortu eta isundu dituzte legearen kontra mintzo direnek, gurean EAJ eta PSE/PSN buru. Espainian, oposizioa zirenean Mozal Legea indargabetzeaz hitz egiten zuten PSOE-k eta Podemos-ek. Gobernuan sartu eta ia bi urtez gaiari heldu gabe izan ondoren, orain legea moldatzea da asmoa. Izan ere, leungarririk onena izaten jarraitzen du moketa zapaltzeak.

Lege bidegabe horren bidez herritarrei egindako gehiegikeriak salatu dituzten gizarte-eragile guztiek antzera hitz egin dute: "Makillajea da, erreforma epela da, deskafelnatua eta berme gutxikoa". Jakina, aurrerapenak ere eduki baditu: bat-bateko manifestazioak egiteko eskubidea aitortzea; identifikazio eta miaketetan polizien neurriz gaineko jarrerak mugatzen saiatzeko neurriak ezartzea; eta isunen zenbatekoa pertsona bakoitzaren diru-sarreraren arabera zateke.

Baina erreforma horiek ez dira nahikoak. Adierazpen-, bilera-, manifestazio- eta informazio-askatasunek jarraituko dute mozala jarrita edukitzen, oinarriko eskubideak praktikara erabiltzeagatik herritarrek gehien zigortzeko erabili dituzten artikuluko bere horretan mantenduko baitira. Adibidez, 36.6 eta 37.4 artikuluko: desobediencia, identifikatzeari uko egitea edota polizia agentearekiko errespetu falta zigortzen dutenak, eta poliziei arbitrariorotasuna berma-

tzen dietenak. Herritarren segurtasunaren arloan jarri dituzten isun guztien ia hiru laurdenen errudun dira bi artikuluko.

Segurtasunerako Legeari izena aldatu eta Mozala erantsi izanaren oinarri nagusietako bat ere mantenduko dute: polizien "egiazkotasun-presuntzioa". Hau da, polizien hitzek beti izango dute arrazoia. Legearen erabateko aplikazio arbitrarioa ahalbidetu eta isunen aurrean herritarrek egoki defendatzea eragozten duen muina ez dute eraldatu nahi izan.

Herritarrek eta herri mugimenduak lege berriaren idazketatik kanpo utzi dituzte, nahiz eta lege horren ondorio zuzenak herritarrok sufritu ditugun. Hori ere ez da aldatu.

PSOE eta Podemos ez dira gai izan segurtasun indarren irudien erabilerari buruzko artikuluko zital eta ezaguna ere indargabetzeko. Legearen moldaketak segurtasun indarren irudiak espazio publikoan grabatzea eta zabaltzea ahalbidetuko duela esan dute. Hau da, Jorge Fernández Díaz PPko Barne ministroak berak ere orain dela bost urte onartu zuena publikoki.

Hortxe dago gakoetako bat. Afera ez da legearen formulazioa. Izan ere, oraingoa askoz atseginagoa da. Funtsean da polizien inpuniteari ez diotela heldu nahi. Bestela, galde diezaiotela hilabete honen hasieran Guadalajaran epaitu duten Diego Herchhoren ekintzaile eta argazkilaria. Lau urte eta erdiko espetxe zigorra eskatu dute haren kontra 2019ko martxoan etxegabetze batean argazkiak egin eta kaleratzea gauzatu zuten agente judizialak (ere) agertzen ziren irudiak zabaltzeagatik.

17 urteko ama, 19 urteko aita eta 5 hilabeteko umea kalean utzi zituztenak ez ditu inork epaitu edo isunik jarri. Protesta egiten edo zabaltzen duenak jarraitzen du legearen jomugan. Hori ez da erreformatu. ●

Bilboko koartelaren aurka

KEM-MOC

BILBO / Ekintza zuzena gauzatu dute antimilitaristek: koartela eraisten hasi dira KEM-MOC taldeko zenbait aktibista, "Bota Kuartela" lelopean, eta espazio hori auzoarentzako berreskuratzeko aldarria zabaldu dute; halaber, datorren urterako aurrekontuetan sartutako gastu militarra gaitzetsi dute. **Uriola.eus**



Cabacas

Cabacas auzian, barne ikerketa artxibatu du Ertzaintzak. Eusko Jaurlaritzak azaldu duenez, sei auzipetuei ezin zaie ardura diziplinariorik eskatu, haietako bost (Juan José de Pablo "Ugarteko" ertzainburua tartean) jada ez direlako funtzionarioak, eta seigarrenak, "tiro egiteko agindua baino ez zuelako bete".

Txile

Gabriel Boric ezkertiarra eskuin muturrari gailendu zaio Txileko hauteskundeetan. Herrialdearen historiako presidenterik gazteena eta bozkatuena da. Bigarren itzulian bozen %56 eskuratu du Apruebo Dignidad koalizio ezkertiarrek, eta milioi bat bozkako aldea ateratzen dio José Antonio Kast ultraeskuindarrari (%44).

Euskara

Nafarroako euskararen lege berri bat egiteko Batuz Aldatu dinamika aurkeztu du Kontseiluak. Salatu dute egungo legearen bidez Nafarroako herritarrei hizkuntza eskubideak desberdin aitortzen zaizkiela, bizi diren herriaren arabera. "Bereizkeria" horri aterabidea eman beharko lioke lege berriak.

ZEMMOUR "POLEMISTA" LEHEN LERROAN JARRI DUTE HEDABIDEEK, FAXISTA BAT BOTEREAN JARTZEKO ARRISKUA HARTUZ

Eric Zemmour. Alde batetik eta bestetik, etengabea dugu Frantziako presidentzialetara aurkeztu den kazetari eta kronikariaren berri. Gogoeta eta proposamen faxistak dituen "polemista" gisa aurkeztuz, sekulako lekua bideratzen diote mainstream komunikabide handiek. Zemmourrek berak hori du helburu, nahiz eta Donald Trumpen antzera etsai gisa kokatu kazetariak. AEBetako komunikabideek egin Trumpen jarraipenetik ateratako irakaspenei begiratu behar diegu, faxista bat boterera iristeko arriskua saihesteko gisan.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Komunikabideen esparrua kakaz es-tali" aholkua eman zion Steve Bannon kanpaina zuzendariak Donald Trumpi. Irudia hitz konkretuetan jarritz: ahal bezain eskandalagarria izan zaitez, komunikabideen zentroa okupatzeko gisan. Ozeanoaren beste aldean izanda ere, gurera heldu zen Trumpen oihartzuna, eta badakigu ere estrategia horrek funtzionatu zuela, eskuin-muturrekoak AEBetako presidentearen aulkia irabazi zuelako 2017an.

Gomendioa gogoan hartu eta bide beretik dabil Eric Zemmour, apirilaren 10 eta 24an iraganen diren Frantziako presidentzialetako hautagai faxistak. Net Hurbil bat eskaini diogu, behintzat Ipar Euskal Herrian nahi baino gehiago janen dugulako bere kaka ondoko egun, aste eta hilabeteetan.

Faxistari "polemista" deitzen diote bera lehen lerrora ekartzen ari diren *mainstream* komunikabide handiek, erru txi-kiagoa sentituko dutelakoan. "Polemista" antifeminista, misoginoa, arrazista, xenofobia, homofobia, lesbofobia, transfobia da, eta zaku bete adierazpen daude hori frogatzeko. Zientzia politikoak ikasirik, kazetaritza ariturikoa da, eta irratiko zein telebistako kronikari gisa egin zen ezagun 2000ko hamarkadan, batez ere *On n'est pas couché* eta *Ca se dispute* telebista emankizuneei esker. Trumpen gisara, beraz, telebistatik sarturik dugu herritarren saloietara.

"Polemista" baino gehiago faxista izanik, Justiziak behin baino gehiagotan zigortu du: 2011n "araza diskriminazioa probokatzeko" eta 2018an "musulmanekiko herra probokatzeko". Bere ibilbide politikoaz arras guti dago errateko: "Eskuinarentzat hainbat ideia biltzen dituen plataforma" osatzen zebilela zioen 2019an, eta bere jarraitzaileek aurten osatu dituzten "les amis d'Eric Zemmour" eta "Génération Z" gazte taldea. Azkenik, azaroaren 30ean jakitera eman zuen ofizialki presidentzialetarako hautagai dela, Reconquête [Errekonkista] alderdi berria sortuz. Puntu. Ez dago beste ezer. Beste guztia *mainstream* komunikabideek osaturikoa eta hauspoturikoa dugu. Bere hautagaizta oztopatzeko azken harresia: Frantziako legediari segi, presidentzialetarako auzak ahal izateko hautagai potentzialak beharrezkoak dituzten 500 auzapezen sostenguak.

KAZETARIEN JOKO ARRISKUTSUA

"Sistemaren biktimaren istorioa etengabe kontatzen du Zemmourrek, argi utziz pentsaera onak, politikoki zuzenak edo komunikabide ezkertiarrek zentsuraturiko istorioa dela. Aldi berean, albistegiak okupatzen dabilen eskuin-muturreko hizlari batailoia Zemmourren ideiak zabaltzen ari da", irakurri daiteke *Mediapart*-ek plazaraturiko *Zemmour, un infernal piège médiatique* ("Zemmour, infernuko zepo mediatikoa") erreporta-

jean. AEBetako hedabideetan aditua den Jay Rosenek artikuluan dio Trumpen eki-poak xeheki landu zutela "komunikabideen esparrua kakaz estaltzeko" estrategia, eta hortik, hainbat aholku bideratzen dizkie Frantziako kazetariei. "Erretorikaren, gezurren eta dibertimenduen urakana hor dagoelako", orain arteko kazetaritza ohiturak birpentsatu behar direla dio: "Ez pentsa orain artekoak funtzionatu duela; hauteskundeak politika-kazetaritza tradizionaletik jorratuz gero arrolara eroriko zarete. Demagogo hauek dioten guztia ez da zabaltzekoa, nahiz eta aktualitateko gertakizun gisa ikusia izan kazetaritza eredu klasikotik".

Gomendioak haizeak eraman ditu. Komunikabideak aztertzen dituen Acrimed elkarteak ikertu berri du Zemmourrek hedabideetan duen lekua: irailean, hau da, hilabete bakarrean "Zemmour" 4.167 aldiz aipatua izan zen -egunero 139 aldiz!-; ia *mainstream* egunkari eta astekari guzietan eskaini diote -eskuin muturreko *Valeurs actuelles*-ek bost aldiz-; eta, nahiz eta ofizialki hautagai ez izan, botoei buruzko hamalau zundaketetatik hamabitan agertzen zen bere hautagaizta. Anitz dira telebista kate publikoek Zemmourri bideratu emankizunak. Faxista horren parean, kazetarien partetik izpiritu kritikoa eskas dela azaltzen da Acrimeden *Médias et extrêmes droites: mais que font les rédactions* ("Hedabideak eta eskuin



"KAKAZ ESTALI"

"Komunikabideen esparrua kakaz estaltzea" zen Trumpen estrategia. Hedabideetan toki anitz okupatzeko gisan, bide beretik dabil Zemmour.

muturrak: baina zertan dabilta erre-dakzioak") artikuluan. Joera arrisku-tua Acrimedean iritziz: "Itsukeria honen parean, zuzendaritzen konplizitate esplizituaren eta profesioaren atoniaren parean premiazkoak ditugu erantzun kolektiboak. Sistema mediatikoaren kritika erradikala zabaltzen segitu behar dugu, horren funtzionamenduak irekitzen diolako bidea arrisku faxistari".

Dena dela, Zemmourren gogoeta eta proposamenak kritikotasunetik jorratuta ere, onura gehiago ekartzen dizkiola irakurri daiteke *The Atlantic* komunikabidearen *The Trump Playbook Hits France* ("Trumpen joko-arauak Frantziara datoz") erreportajea: "Jarraipen kaltegarriarekin kalte eginen diogula pentsatzen segitzen dugu, baina Trumpen

jarreratik ikasi dugu hori alderantzika-tzen duela, bere alde erabiliz. Frantsesei ohartarazi nahi diet ikusten dutenean kritika errekuiperatu eta bere diskurtsoan txertatzen duela [Zemmourrek], orduan arrisku-gunean daudela eta kazetaritza eredua birpentsatu behar du-tela". Hau ere Jay Rosenen aholkua da.

Kezkagarria da *Zemmourizazio* hau eta Kazetarien Sindikatu Nazionalak ere 103. kongresuko ebazpenean deitoratu du "presidentzialetako kanpainaren *Zemmourizazioa*", Zemmourren "jarraipen frenetiko" eta erredakzio eta zuzendaritzek daukaten "segipen okaztagarria". "Kazetariok ez gara gorrotoaren konplize izanen" zutabea izenpetu zuten urrian 300 kazetarik. "Komunikabideen patroï handiez bereizten gara",

diote testuan. Arazoaren oinarrian hori ere badelako: Frantziako komunikabi-deak bilioiak dituzten hamar gizonen esku dira -Bouygues, Xavier Niel, Dassault, Bernard Arnault, Bolloré, Pierre Bergé, Patrick Drahi, François Pinault, Matthieu Pigasse eta Lagardère-. Horiek dirua egitea dute helburu, eta berdin du faxista bat boterera heltzea baldin bada horren ordaina.

Abenduaren 5ean buruturiko lehen mitinean, arrazakeriaren kontrako me-zua zabaltzera etorritako SOS Arrazake-ria-koak bortizki jipoitu zituzten Zem-mour zaleek. Kazetariak ere jo zituzten, Zemmourrek kazetariak gogor kritikatu eta haien kontrako herra sustatzen due-lako. Hori ere, jakina, Trumpi lapurturi-ko taktika. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

NINA MÛR
eyewear

Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak





Hernani 23, 20004 Donostia • 943 420 624 • zinkunegioptika.com

Paloma Chen

MINGAIN HIBRIDOA

“

HIZKUNTZA BAKARRA DAUKAT, ETA EZ DA NIREA

”

Arrazakeriaz, literaturaz eta kulturartekotasunaz kazetari gisa idazten ez duena, bere poemen bidez askatzen du. 2020ko #LdeLírica Poesia biziko Espainiako Estatuko Sari Nazionala irabazi zuen bere poemekin, eta laster argitaratuko du lehen poema liburua. Donostiako Feministaldian bere poemak errezitatu aurretik elkarrizketatu dugu, Tabakaleran. Errezitaldia entzun ondoren beste behin elkarrizketatzeko gogoarekin gelditu gara.

 MIREN ARTETXE SARASOLA  DANI BLANCO

Zer erantzuten duzu nongoa zaren galdetzen dizutenean?

Esan nezake Utiel herrikoa naizela. Valentziako bazterreko herri bat da, Gaztela Mantxatik oso hurbil dagoena. Ni beti bizi izan naiz Utielen, gero Valentziara joan nintzen eta orain Bartzelonan bizi naiz. Baina zintzoa banaiz, nongoa naizen galdetzen didatenean nire familia txinatarrak dela esaten dut. Badakit jendeak galdera buruan duela, beraz, esan egiten dut. Valentziarra naizela esaten dudanean, badakit galderak buruan jarraitzen duela. Zuzenean edo zeharka egiten duten galdera erantzutea egiten zait erosoena. Txikitan mingarria zitzaidan. Batzuetan ez zen galdera ere izaten –galdera batek gutxienez erantzuteko aukera ematen dizu–. Askotan baieztapen bat izaten zen:

txinatarra zara. Horrek muga bat jartzen zuen ni eta besteen artean. Izan ere, nire herrian gurea zen familia txinatar bakarra, eta ez zegoen nire antza zuen beste inor. Eta noski, zuriak ez dira ohartzen haiek zuriak direla. Denok dugula arraza bat, edo inork ez daukala. Supremazismo zuri honen baitan bizi garenez, ni ere ez nintzen ohartzen horretaz. Ni nintzen ezberdina eta kito. Eta hori naturalizatu egiten duzu denborarekin.

Zure inguruan zure gurasoak eta zure neba baino ez ziren zure “antza” zeukatenak. Horrek muga asko eraikitzen ditu?

Bai, buruan gehienak. Erreferente faltak zure burua ezin proiektatzea dakar. Niri irakurtzea izugarri gustatzen zitzaiz-

dan, adibidez. Baina literaturan ere ez nituen inoiz aurkitzen nire antza zuten pertsonaiak edo idazleak. Literaturak harrapatzen ninduen, pertsonaiek eta istorioek eramaten ninduten ezagutzen ez nituen lekuetara, eta horrek zentzu handia eman zion nire bizitzari, baina irakurtzen nuenak ez zidan laguntzen nire identitate gatazka ebazten. Oso berandura arte ez nuen erreferenterik aurkitu. Oso lan nekeza izan da hori. Idazle emakumeekin topo egitea zaila baldin bada, pentsa bestelako identitatez ari bagara. Nerabezaro bukaeran aurkitu nuen nire lehen erreferentea Espainiako Estatuan. Quan Zhou Wu-ren *Gazpacho Agridulce* ezagutu nuenean shock bat izan nuen. Izugarrizko eragina izan zuen nigan andaluziar eta txinatar iden-



Paloma Chen

ALACANT, 1997



Alacanten jaioa Wenzhou-ko familia txinatarrean, Utielen (Valentzia, Herrialde Katalanak) hazi zen. Bere haurtzaroko esperientziek kazetaritza-ikerketara bultzatu zuten eta 2019an *Crece en un chino* (Txinatar batean hazi) dokumentala zuzendu zuen. Gaur egun, besteak beste, *El Salto*, *El País* eta *Punt Media* hedabideekin kolaboratzen du.



titateak gorputz berean biltzeaz egiten zuen kontaktak.

Modu gatazkatsuan bizi zenuen, hain zuzen, zure gorputzean identitate ezberdinak biltze hori?

Nik nire identitatea arrakala gisa bizi nuen. Ez nintzen txinatarra baina espainiarra ere ez, ez nintzen aski bat ez aski bestea. Alde batetik zein bestetik nire identitatea zalantzan jartzen zuten etengabe. Nire familia saiatzen zen ahal bezain txinatarra izan nendin. Pixkanaka ohartzen joan ziren ezetz, ez nintzel txinatarra izango, edo ez behintzat haiek irudikatzen zuten modukoa, eta nire txinatar ez izate hori arbuiatu izan dute. Eta aldi berean hemengoek ere argi uzten dizute ez zarela bertakoa. Saiatuta ere, haiek egiten duten guztia eginda ere, ez zarela inoiz izango haiek bezalakoa. Eta zuk ez daukazu tresna ideologikorik horri aurre egiteko eta errua baino ez duzu sentitzen.

Erreferente ezberdinei esker ikusi nuen nola beste era batera ulertu zitekeen kontua. Identitate baten eta

bestearen batura gisa. Egiari zor, kontua ez da batura bat bezain sinplea. Ez da nahikoa esatea espainiarra eta txinatarra naizela, adibidez. Identitatearen atal ezberdinak modu konplexuan txirikordatzeko dira. Garbi dago txinatar edo espainiar izateko moduak modu monolitikoan eta estereotipatuan ulertzen baditugu, ez naizela ez bat eta ez bestea. Baina genero identitatearekin gertatzen den bezala, kategoriak continuum batean jarritako mugak baino ez dira. Zein emakume ez da urruntzen emakume kategoriaz pentsatzean irudikatzen dugun horrekiko? Eta zein txinatar ez da urruntzen txinatar kategoriaz pentsatzean irudikatzen dugun horrekiko? Zer da txinatar izatea? Kategorria ustez argiak direnak xehe aztertuz gero kontua korapilatu egiten da. Baina konplexutasun hori bera aintzat hartzea askagarria izan da niretzat.

Txinara joan zinen bizitzera urte betez. Hango esperientziak zertan egin zizun ispilu?

Erasmus beka baten modukoa lortu nuen Txinan unibertsitate ikasketak egiteko. Eta izugarri gustatu zitzaidan. Txinatar jatorrikook oso idealizatu dugu jatorrizko amerri hori, zure familiaren eta arbasoen lurra... Baina ez da iluminaziorik edo errebelaziorik gertatzen. Niri gertatu zitzaidana da ni bezalakoa jende asko ezagutu nuela. Txinatik kanpora jaio ziren edo bizi izan ziren pertsona piloa zebilen ni bezala, jatorriari buruzko ikerketa intimoan. Eta ohartzen zara gutako bakoitzak bere ikuspegi estereotipatuak dituela txinatarrei buruz. Eta ikusten duzu txinatarrek haien erara bizi direla, gutako bakoitzak duen irudi finko horretatik aldentzen direla era batera ala bestera.

Hori bai, metroan bidaia tzean izaten nuen sentsazioa izugarria zen. Denak ziren ni bezalakoa eta inork ez zidan arraro begiratzen desberdina nintzelako. Hori ez zait beste inon gertatu. Bertakoa izan nintekeen. Baina sentsazioak ezin zuen askorik iraun. Ahoa zabaldu bezain laster zetozen galderak. Nongoa zara? Berriro gauza bera. Eta behin eta berriz irekitzen zen zauria. Jendea ez da ohartzen, baina mingarria da. Niri ez zait gustatzen kontatu behar izatea nola joan behar izan zuten nire gurasoek haien herritik kanpora bizimodu hobe baten bila, miseriatik ihesi. Ez da erromantikoa. Bestearen errukia edo mespretxua jasotzen duzu eta ez bat eta ez bestea ez dira onuragarriak zuretzat.

Hemen, ordea, ez omen dago txinatarrekiko arrazakeriarik...

Idea hori oso zabaldua dago. Gizarteak pentsatzen du ez dagoela txinatarrekiko arrazakeriarik, gurekiko dauden estereotipo asko baikorrak direlako, kakotx artean. Etorkin eredugarriak gara. Matematikan onak, isilak... Txinatar etorkinen irudia hori da: ez dute istilurik sortzen. Ez beste batzuek bezala. Marokoarrek bai, latinoamerikarrek ere bai, haiek arazoak sortzen dituzte. Gu omen gara ondoen integratzen garenak. Baina zer da ondo integratzea? Ez kezaketa? Nagusiak nahi adina lan egitea? Erasoei ez erantzutea?

Nik bazterkeria oso handia bizi izan dut haurtzaroan, esaterako. Nire anaiak biolentzia fisikoa ere bai. Bera 11 urtekin iritsi zen hona eta jendeak ez zuen inoiz txinatarrik ikusi. Ni bertan jaioa nintzen, geroxeago, eta nik entzuten nuena zen "ezin duzu gurekin jolastu txinatarra zarelako".

Nire irakasleek, aldiz, oso ongi tratatzen ninduten eta asko espero zuten nigan. Nire jatorriari lotutako estereotipoekin lotzen ninduten. Oso nota onak ateratzen nituen, baina ez nire merituz. Odolean neraman. Eta nota txarrak ateratzen banituen, drama bat zen. Nola zen posible? Eta hori sekulako presioa zen niretzat. Nire ibilbidea normala izan zedin, nota bikainak ateratzera behartuta nengoen. Hortik beherako guztia arazotsua zen. Estereotipoak, ustez positiboak ere, kaltegarriak dira. Aterabiderik gabe uzten zaituzte. Betetzen badituzu betikotu egiten dituzu, eta betetzen ez badituzu ez betetzea bera problematizatu egiten da.

Gainera, estereotipoek zure izaeraren beste alde batzuk ikusezin bilakatzen dituzte. Niri herabetasunaren estereotipoarekin gertatu zitzaidan, esaterako. "Txinatarrek oso herabeak dira, oso isilak eta oso misterioitsuak". Ni halakoxea nintzen. Beti izan naiz oso bakartia eta barnekoia. Baina isila eta misterioitsu nintzen erabat traumatizatuta nengoelako!

Zergatik dugu txinatarrekiko irudi hori?

Hemen txinatarren inguruko iruditeria guztia hedabideek sortutakoa da, eta noski, orientalismoak iragazia. Oso folklorizatua, Konfuzio Institutuak zabalitzen duen antzinako Txinaren irudian oinarritua. Denboraz eta espazioz urruneko gisa ikusiak gara. Ia estralurtarrak bagina bezala. Fetitxizatzen da milaka urteko kultura hori, eta hemen go apartamentuetako hormetan txinezarzko grafiadun posterrak ditu bertako jendeak. Gu kultura urrun horren eramaile diren gorputz ateporalak gara. Eta hori ezin da hurbileko sentitu. Betiko kanpotarrak gara, ezinbestean. Espainiako Estatuan dagoeneko badaude lau belaunaldi, baina ez dago bertako txinatar bat bera ere.

Baina badago beste iruditeria bat, horrekiko paraleloan, egungo txinatar estatuari eta komunismoari lotua. Izan ere, txinatarrek dira mundu mailako arerio nagusiak. Alderdi komunistak kontrolatutako superpotentzia bat da, asko dira, eta guregana datoz. Horrekin ere lotzen gaituzte. Maiz jendeak Txinako Errepublikari buruzko galderak egiten dizkit. "Zer iruditzen zaizu hau, ala beste hau?" Eta nik zer jakingo dut ba? Ez naiz han bizi, gizona! Galdeiezadazu ea hemen nola bizi dudan



SCHRÖDINGER-EN IMMIGRANTEA

"Estereotipoen artean ere inkoherentzia nabarmenak daude. Immigranteek lana lapurtzen digute. Baina aldi berean, immigranteek ez dute ezer egin nahi, alfer batzuk dira eta diru-laguntzetatik bizi dira. Moha Gerehou-k hitz egiten du horretaz eta fenomenoari Schrödinger-en immigrantea deitzen dio".

ARRAZA ETA GENEROA

"Oso sexualizatuta eta oso fetitxizatuta daude asiarrak emakumeak Mendebaldeko ikuspegitik, honi Mendebaldeak dei badakioke. Eta edertasunarekin ere harreman ambibalente bat eraiki zaie. Entzun dezakezu han edo hemen emakume asiarrak bereziki ederrak direla, baina aldi berean niri esan izan didate oso polita naizela txinatarra izateko -zer erantzuten zaio horri, "mila esker"?-. Gizonekin, berriz, alderantzizkoa gertatzen da. Ez dira sexualizatzen. Ez direlako aski gizon. Ez dutelako aski bizar. Eta noski, zakil ñimiñoa dutelako".

ARRAZAKERIA

"COVIDaren istorio honek legimitatu egin du lehendik zegoen txinatarrekiko arrazakeria. Katalizatu egin du. 'Ez gara jatetxe txinatarra joango afaltzera, COVIDa harrapatzeko ere!'. Bai, noski, Valentziako Utiel herritik atera ez den familia hau infektatuta egotea oso probalea baita. Ez balego oinarri arrazista bat azpian, ez ziren pandemia garaian entzun direnak entzungo. Haur txinatarrei "koronabirus" deitzen hasi zitzaizkien eskoletan. Edo BBVAk lehenik eta La Caixa gero jatorri txinatarreko jendea kontuak blokeatu zitzaizkien inolako funts legalik gabe. Nire gurasoei ere gertatu zitzaien. Eta hau ez da zabaldu, baina arrazismo estrukturala da".

txinatar izatea. Horri buruz hitz egin dezaket.

Integratuko bazinate ez legoke inolako arazorik...

Horixe da [barre egiten du]. Baina dioguna bezain inklusiboak bagina, ez genioke denari uko egin behar izango "integratu" garela erakusteko. Izena, janaria, egiteko moduak, janzkerak... Egiazki pentsatzen dugu hona gatozela bertakoenak diren abantailen bila. Eta egin behar duguna dela bertakotzea, bertako janzkera, bertako janaria, bertako hizkuntza eta bertako azentua gure egitea, eta ahal dela, desagertzea. Ez dakit nori aditu nion gehiago integratzen bazen desintegratu egingo zela. Zer esaten dugu integratu esaten dugunean? Zer zaizu trabagarri? Kuskusa jatea? Zapia janzea? Beste hizkuntza batean hitz egitea gure artean?

Hizkuntzarena izugarria da. Gure artean txineraz hitz eginez gero kaleko begiradak aldatzen ikusten dituzu. Nik adibidez, hizkuntza galdu nuen. Niri esaten zidatenez ezin nuela ikaskideekin jolastu txinatarra nintzelako, ez nuen txinatarra izan nahi. Nik haiekin jolastu nahi nuen. Eta etxekoekiko amorrua ere sentitzen nuen. Ez nuen txineraz hitz

egin nahi. Gaztelaniaz ongi moldatzen nintzen eta txineraz hitz egiteari utzi nion. Gaur egun berriz ikasten hasi naiz, baina nire txinera haur baten txinera da. Eta orain gurasoekin ezin dut haien hizkuntzan hitz egin. Mandarina eta gaztelania nahastuz hitz egiten dut nik. Haiek ez dute ongi hitz egiten gaztelaniaz, eta haien txinera moldatzen dute nireira. Eta egoera hori bizi dut gaur egun oso txikitik hartutako erabaki batengatik, une hartan bizi nuen bereizkeriak bultzatuta. Egoera desdramatizatzen saiatzen naiz pentsatuz komunikazioa ez dela soilik hitzezkoa, eta benetan ez dagoela bere gurasoen hizkuntza berbera hitz egiten duen inor. Baina nire egoera eragin duena bereizkeria estruktural zehatz bat da, eta horrek amorrua ematen dit. Bada Ines Herrero erakutsi zidan esaldi bat Jaques Derrida *Le monolinguisme de l'autre* liburutik atera zuena: «Hizkuntza bakarra daukat, eta ez da nirea».

Zurea ez den zure hizkuntzan idazten dituzu poemak ere. Kazetari gisa baino askeago hitz egiteko modu bat da zuretzat literatura?

Aske izateko modu bat da, zentzurik zabalenean. Txikitik pentsatzen nuen

nik ere jotetxean bukatuko nuela. Nire erreferente bakarrak nire gurasoak ziren. Eta erreferente zoragarriak dira, baina haietaz ez zegoen beste aukerarik jotetxean orduak eta orduak lanean ematea baino. Eta ni asko kezkatzen ninduen horrek. Ez nuen hori nahi, baina ez nuen ni bezalako inor jotetxe txinatar eta bazarretatik kanpo lanean ikusten. Bide bakarra ikusten nuen, bestelako lanbideak dituzten asiarrek ez dutelako ikusgarritasunik. Ez direlako ikusten telebistan, edo zineman. Ez dira ikusten egunkarietako argazkietan poema liburuak aurkezten. Horrek eramaten zaitu ez sentitzera beste ezer merezi duzunik. Badakizu okindegi batean lan egiteko ere, zure txinatar itxura oztupo izango dela. Baita kazetari izateko ere. Eta errazagoa izan daiteke ezaguna eta eroso zaizun eremu batean proiektatzea zure burua beste ezer irudikatzea baino. Horregatik idaztea mundu aske bat sortzea izan da niretzat. Mundu aske hori sortzeak egin nau askeago. Nire poemak bidez nire bizipenak ere aldatu dira. Errezitaldietarako hitza hartu dut jendaurrean. Eta hitza hartzeak nire aho-tsa bera aldatu du. Nire egoteko modua. Nire poesien bidez askatu naiz ni ere. ●

Zientzia eta irudimena, etorkizuneko giltzak

CAF
ELHUYAR
SARIAK
2022

Oinarriak:
cafelhuyarsariak.elhuyar.eus
Lanak bidaltzeko azken eguna:
2022ko otsailaren 12a

Antolatzaileak:



elhuyar
ezagutuz aldatzea

Babeslea:





Sua ilunpean



DAVID BOU
KAZETARIA

Shaky, Violeta, Arsalan eta Zhara ziren. Bikotea eta 3 eta 4 hilabeteko haien seme-alabek osatutako familia. Beste lau pertsonekin batera bizi ziren Bartzelonako Tetuan plazan okupatutako etxabe batean. Banku baten egoitza izan zen espazioa, hark itxi eta deslai utzi zuen arte. Antza, beste 13.000 lokal ere hutsik daude, hiriko 80.000 merkataritza-lokalen %17.

Iragan azaroaren 30ean hil ziren familiako lau kideak, goizaldean, haiek jakin gabe ere azken bizitokia izango zutena suteak irentsi zuenean. Ikerketak zabalik jarraitzen du, baina hipotesi nagusiaren arabera, kandela batek eragin zuen sua. Agintariak bazekiten alde aurretik eraikinaren egoeraz, eta hala-koetan bizi diren pertsonentzat arriskutsuak diren okupazioen zerrendak biltzen dituen Esquadra Mossoen txostenean agertzen zen.

Zerrenda hori duela urtebete hasi zen osatzen, Badalonako eraikin bat suntsitu eta beste hiru pertsona hil zirenean. Horrez gain, bizi-baldintza ezin eskasagoak biltzen zituen leku hartan bizi ziren beste hamarnaka migratzaile ere etxerik gabe geratu ziren. Antzerako egoerak arazo kroniko bihurtu dira Bartzelonako Metropoli-eremuan eta, Kataluniako hiriburuko udalak aitortu duenez, 384 lagun -53 adingabeak- bizi diren 86 ko-

Milaka pertsona
inolako babes
barik uzten dituen
Atzeritarren
Lege arrazista eta
bartzertzaileari esker,
ez zuten ez bizileku,
ez lan baimenik

kaleku lokalizatuak ditu; beste 105 lo-kaletan 481 pertsona bizi dira, haietatik 156 adinez txikiak.

Kasurik onenean, horietako hainbat familiak udalaren gizarte zerbitzuetako laguntzak jasotzen ditu: janaria, seme-alabak eskolatzeko aukera eta osasun egoeraren jarraipena. Alabaina, bada zerbait haietako gehiengo handiaren egoera errotik baldintzatzen duena: ez dute Atzeritarren Nortasun Zenbakirik. Praktikan, horrek esan nahi du ofizialki ez direla existitzen Espainiako

Estatuarentzat, nahiz eta jatorrizko herrialdeetako agiri denak txukun-txukun izan.

Horixe zen zendutako familia honen egoera. Pakistaneko herritartasuna zuen aitak, eta amak Errumaniakoa. Milaka pertsona inolako babes barik uzten dituen Atzeritarren Lege arrazista eta bartzertzaileari esker, ez zuten ez bizileku, ez lan baimenik. Legezatu bako egoera horrekin, bikoteak ezin zuen izenik eman Bartzelonako etxebizitza eskaeren zerrendan; ezta herritartasun errenta edo bizitzeko gutxieneko errenta eskatzeko aukera ere. Horrexegatik, diru-sarrerak lortzeko txatarra biltzen zuten eta okupazioa zen sabaia izateko modua.

Sasi-etxebizitza hauetako askotan ez dago argi-indarrik, eta sua da ikus-teko edo hotza datorrenean berotzeko bide bakarra. Badatoz Gabonak eta, gure kontsumo neurrigabea akuilatze-ko kallean argiek dir-dir egiten duten honetan, ezin ditut burutik kendu argia emateko kandela bat besterik ez duten pertsona horiek. Tetuan plazako heriotzak ez dira istripua, argi-indar enpresen, bankuen eta higiezin hilketa bat gehiago dira; txiroen aurkako gerran, urtez urte hala ematen diete amaiera iluntasunean utzi nahi gaituen sistema kapitalistarentzat inongo balorerik ez duten bizitzet. ●

Haziera ere politikoa da



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Zapalkuntzaren kontra borrokatu nahi baldin badugu, ez da aski agintari tiranoak identifikatu, salatu eta beren kontra egitearekin, historiak tamalez etengabe erakutsi digunez. Beharrezkoa da agintari horien boterekeria hain erraz onartzen duen masarengan arreta jartzea, menpeko direnen karakterean dagoelako, La Boetiek ongi ohartarazi zigun bezala, zapalkuntza ulertzeko faktore garrantzitsuenetako bat.

Wilhelm Reichek ongi antzeman zuen zapalkuntzaren fenomenoak psikologiaren perspektibatik ere ikertu beharra zegoela, eta aportazio erabakigarria egin zion psikologia sozial eta politikoari, iragan mendeko 30eko hamarkadan, *Faxismoaren masaren psikologia* liburua idatzi zuenean. Bertan, Hitlerren garaipenaren gako nagusienetako bat jendearen psikologian zetzala frogatzen saiatu zen, oraindik behar bezala erabili ez dugun lezio garrantzitsua emanez iraultzaileoi: jendearen psikologia errotik manipulatzea dela botere (autoritario)aren arma indartsuenetako bat, masaren mentalitatea interes zehatz batzuen arabera zizelkatzea, alegia.

Gizarte guztiak saiatzen dira gizarte-eredu hori sustengatzeko beharrezkoa den profil psikologikoa hurrengo belau-

naldietan sortzen. Eta helduaren konfigurazio psikologikoaren oinarria haurtzaroan dagoenez, heziketa da sistema batek horretarako erabiltzen duen tresnarik eraginkorrena: pertsona idealaren diseinu bat egiten da, eta horren arabera erabakitzen zein diren haur batengan txertatu edo erauzi beharreko ezaugarri psikologikoak.

Gurea bezalako gizarte batean, libreki bizitzeko gai izan ez gaitzela da helburu nagusia, nor bere buruaren autoritate gisa bizitzeko gai ez denak ezinbestean beharko duelako beste norbaiten gidaritza, eta hau bereziki komenigarria delako. Heziketa direktiboa horretarako egina da: geure buruaren gaineko konfiantza galduta, eta gure printzipioen arabera bizitzeari utzita, beste interes batzuen arabera bizitzen ikas dezagun eta horretan ohitu gaitzen. Hori da eskolako curriculum ezkutukoaren muina.

Heziketa hau ez da, noski, haurrei minik eragin gabe burutu daitekeen jarduerara. Sano baldin badaude, eta horretarako aski indarra baldin badute, beti jarriko dutelako halako erresistentzia bat, zeinaren kontra ezarri (eta justifikatu)ko baita maila bateko ala besteko biolentzia bat. Heziketa instruktiboak biolentzia kanti-tate inplizitu bat darama.

Burujabetza psikologikoa eragozteko, dena den, egiturazko dependentzia emozionala sortu behar da pertsona batengan. Eta horretarako, bizitzaren lehen urteetan haurrei eskaintzen diegun hazieraren ingeniaritza fina erabili ohi da, eskola garaiko heziketarena baino eraginkorragoa dena, askoz. Bularra noiz hartu, edo besotan noiz nahi duen, edo pixoihala noiz kendu behar zaion haur bati erabakitzen ez uztea, ohiko praktika pediatrikoa da, normalizatua dugun arren uste bezain neutroa eta kaltegabea ez dena. Gure errealtatea libreki kudeatzeko gure berezko gaitasuna atrofiatzeak, mendekotasuna gure biologian bertan ereitearen ondorioa du, garrantzitsuak zaizkigun kontuez erabakiak hartzea guri ez dagokigula hasieratik beretik ikasiz.

Heziketa politikaren eremuko jarduerara da, baina haziera are gehiago. Horren bitartez instalatu ahalko zaigulako sozio-rregulazioaren arabera bizimodu interesatua, edo askatasunaren oinarri den autorregulazio (eta autogobernu) arena. Doktrinamenduaren kontra, pertsonak psikologikoki sendoak (eta libre) izateko heziketan eta hazieran egin beharreko aldaketetan jarri behar dugu indarra. ●

Urradura



**LAURA PENAGOS
ANTZETZLEA**

Amildegi historikoetan erori: giza-tasunaren galera, ukuiluak, enkan-teak, bortxaketak, torturak, bahi-
ketak, hildakoak, desagertuak, zaharren
begi irekietan isuritako lokatza, osotasun
hondatua, etxea izan zena, norberaren
kultura ukatzea, miseria, gosea, espiri-
tuak suminean, urrea, azukrea, su-armak,
inperioen jaiotza, Ilustrazioa, Entziklo-
pedismoa, petrolioa, sistema ekonomiko
europarra, zapaldu eta merkantzia gisa
ustiatzen dituen, hondamendi demo-
grafikoa, krimen historikoa... eta neure
buruari galdetu diot: "Nori interesatzen
zaio hau guztia?".

Hil zirenak ez ziren hemengoak, ez zen
hemengo odola, ez zen hemengo kultu-
ra, bestela, beste bat izango zen kontua,
segur aski. Zenbat mutilek eta gizonek
utzi zuten Euskal Herria ez bizirauteko
edo hobeki bizitzeko, aberasteko baizik?
Handinahi horrek itsutu zituen, eta haien
ibilbidea ez zen hemen Euskal Herrian
kontatzen den modukoa izan. Nork sinets
dezake? Gaur egun, norbaitek esango du
hau guztia gainditu behar dela, mendeak
pasatu direla, eta hori esatea egokia izan-
go litzakete errealitatea bestelakoa balitz.

Orain dela gutxi, Bigarren Hezkun-
tzako Ikastetxe batek Pedro Ursua zuen
izena. Nor izan zen Pedro Ursua? Kul-
tura-zentro batean, Andres Madariaga

Amatianoren hilobi bat dago. Nor izan
zen Andres Madariaga Amatiano? Nor
izan zen Lope Agirre? Eta abar.

Ez al da kolonizazioa esplotazioa eta
genozidioa legitimatzeko modu bat? Ez
al da krimena eta injustizia legitimatze-
ko modua? Zer egin da mendekotasun
mende horietan guztietan? Nola sortu
existentzia berri bat? Nola askatu lu-
rraldetik gure pentsamendua, gure gor-
putza? Nola mobilizatu kontzientzia ko-
lektiboa hemen egonik? Posible al da
zapalkuntza sentitzeari uztea? Zenbat
mendetako aurreiritziak gainditu behar
ditugu?

Galtzaileen herria gara, birrindutako
herria. Esklabotzak gure historia geldit-
tu eta zatitu zuen, erlojua gelditu zuen.
Gurean geunden, munduaz dugun ikus-
keran, geure kultura garatuz, gure his-
toria idatziz, eta beste mundu-sistema
ekonomiko batek apurtu, desartikulatu
eta salerosgai bihurtu gintuen.

Badakigu, errepikatuko da. Iritsi da
egun hori? Errepikatu egingo da, kaosak
eta ordenak gobernatuko dute. Batak
bestea izendatzen jakingo ez dugun aroa
iritsiko da, haren izena pixkanaka eza-
batuko da gure oroimenetik, eta gero
guztiz desagertuko da. Giza garapenak
menderatzea dakar? Bizitzeko zerbait
suntsitu behar digu? ●

(In)justizia



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA**

Prozesu judizial baten barruan gaude
orain sei bat urte. Auzokideok ume-
dade arazo bat izan genuen fatxada
egin zigun enpresarekin, eta epaitegian
kateatuta gaude. Aste honetan aldatu di-
gute epaiketaren data, seigarrenez, lau-
garren epaileak hartuko duelako auzia.
Erraza izan behar zena, Kafkaren proze-
su bihurtuta sistemaren erruz, eta pan-
demia bat tartean.

Batzuentzat huskeria izango da; baina su-
frituz gero, jakingo lukete antsietatea, amo-
rrua eta tristura eragiten dizkigula egoerak,
bizitzan oztupoak sortzen dituelako, txikiak
baina oztupo. Osasunean ere kalteak.

Justizia motela da esan ohi da. Baina
hain astiro ibilita ez da justizia, me-
sede egiten diolako kalte-egileari, in-
punitate osoz jarrai lezakeelako bere
kontuetan. Eta kaltea jaso dutenak
gero eta okerrago daude. Sufritzaileek
sufritzen jarraitzen dute, eta hurren-
gorako argi dute epaitegietara ez du-
tela joko. Kontzientzia bakoendako,
ostera, fabore, inork konturik hartuko
ez dielako libre sentitzen dira joko zi-
kinean jarduteko.

Abandonua jaso dugu hamarkada erdi
honetan, inori ardura ez diogula sentia-
razi digu (in)justiziak. ●



Iraganeko errelatoaz hainbeste hitz egiten den herri batean, hori bezain inportantea iruditzen zait etorkizuneko errelato posibleez hitz egitea, hau da, datozen urte eta hamarkadetan existitu daitezkeen gizarte posibleez gogoetatzeari. Azken finean, etorkizuna ez ezik, errelatoek oraina ere moldatu egiten dutelako. Illo horretatik, aldaketa sozialak dimentsio politikotik aztertu eta irudikatu ohi ditugu soilik; baina, modu berean, eraldaketa sozial orok jendar-tearen emozio kolektiboetan eragin behar duelakoan nago. Zentzu horretan, krisi ekologikoaren gaia hedatzen doan heinean, nire inguru zabalean bederen, etorkizunarekiko iruditegi katastrofistak hartzen ari diren presentzia kez-kagarria iruditzen zait, hain zuzen ere etsipen kolektiboa ez delako eraldaketa sozial askatzaileekin bateragarria.

Gauzak horrela, euskal funtzionario batek "historikotzat" jo zuen arren, Glasgowko goi bilera dezepzionantea izan dela onartu beharrean gaude (berez, barez lehertzekoa litzatekeen komentarioa da, ez balitz Ingurumen, Jasangarritasun eta Ekonomia sailburuaren ahotik ateratzen). Berririo ere, bagenekiena gertatu da; ezin dugula Salbazioaren karta

Oker gabilta trantsizio ekologikoa berez emango den prozesua dela uste badugu: trantsizio ekologikoa justua izango da, edo ez da izango

eliteen ustezko ontasunaren esku utzi, alegia. Argindarraren prezioaren igoerarekin gertatzen ari dena ikustea besterik ez dago, nahiz eta gasaren prezioak ere zeresan handia duen horretan.

Hamarkadak daramatzagu ostrukarena egiten, orain guztion ahotan dagoen ebidentzia zientifikoari muzin egiten; aldiz, arazo (eta erronka) erraldoiaren aurrean gaudela ukaezina da: talka bizitzaren ari gara, kapitalismo globalaren

eta Lur planetaren muga fisiko –krisi energetikoa eta material eskasia– zein biologikoen –klima aldaketa eta biodibertsitate galera– artean. Datozen urte eta hamarkadetan agerikoagoa izango den talka. Prozesu konplexu, poliedriko eta korapilatsua, ezin dena goiburu pare batekin laburbildu.

Edonola ere, hein handi batean, oraindik ere egiten dugunaren edo egiten ez dugunaren arabera izango da etorkizuna. Ulertu behar dugu onerako eta txarrerako ez dagoela klima aldaketa posible bakarra. Zientzialariek ezarritako marra gorriak gaindituko bagenu ere (eta pertsonalki, egoera ikusita, ez dakit zentzurik ote duen garai aurre-industrialetik 1,5 graduen igoeraren langa ez gaintzezarekin jarraitzeak) ez dago amore ematerik, tenperatura globalak igotzen jarraituko luke.

Oker gabiltza trantsizio ekologikoa berez emango den prozesua dela uste badugu: trantsizio ekologikoa justua izango da, edo ez da izango. Horregatik, sektore ezberdinetako jendea begirada soziala duen euskal ekologismoa artikulatu eta eraberritzeko egiten ari den saiakera da izan dezakegun berririk itxaropentsuena. ●

ARGIA Abenduak 26, 2021



7€

+ 4€
bidalketa
gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

Jakoba Errekondok garaiko uztak eta baratzea,
fruitu arbolak eta basoko lanak.

Pello Zabala aukeratutako esaerak.

Xabier Ormaetxea Akizuk
ilargiaren eragina eta saioak.

Maria Thunen egutegi
biodinamikoarekin osatua.

Neurriak

Irekia: 480x340 mm.

Paretan eseki ahal izateko zuloa darama.

azoka.argia.eus 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik
08:00etatik 15:00etara (beste ordutegiak aurrez kontsultatu).



**txikitik
eragiten!**





Osasun publikoa akabatuko dute, zuzenean

Herritarrok osasun sistema kolapsatuko den beldur bizi gara pandemia hasi zenez geroztik. Itxialdi garaian eten zen osasun publikoaren ordura arteko martxa, eta abenduaren 7 honetan berriro iragarri du Gotzone Sagardui Jaurilaritzako Osasun sailburuak Lehen Mailako Arretako osasun-kontsulta guztiak atzeratuko dituela Osakidetza, “aparteko larritasunik ez badute”. Baina COVID-19 gaixotasuna norberak bere etxean sartuta eta inongo medikuk ikusi gabe pasatzen badu, eta larri daramatenak zuzenean ospitalera joaten badira, zer lanekin ari da Lehen Mailako Arreta kolapsatzen pandemia hau?

 **ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA**

Osasun publikoan ari den familia mediku batengana jo dugu galdera hauen erantzun bila. Neurri batean, pandemia kudeatzeko moduak ekarri du anbulatorioen kolapsoa: “Pandemiaren kudeaketarekin lotutako kolapsoa saihesteko hainbat bide badira, baina hasieratik baztertu dituzte. Adibidez, pandemia hasi zenean, 2020an, konfinamendua baino lehen, mediku batzuei bururatu zitzaigun gaixo kronikoak (bihotzeko arazoak, biriketako arazoak eta abar dituztenak) ziren langileak dekretu baten bidez lanetik salbuestea. Hau da, langile hauek baja hartuta etxean geratzea zela onena, eta jarraipen hori laneko mutuek egitea. Azkenean nola-hala lortu genuen, baina geroago, ERTEak onartu zirenean”. Gobernuak laneko bajak mutuatar bideratzeak Lehen Mailako Arretaren gainkarga arindu dezakeela adierazi du: “Pandemia batean, dekretu baten bidez proposa dezakezu hori laneko mutuen bidez egitea. Horrela deskolapsatuko

litzateke hein handi batean Lehen Mailako Arreta: egunero ari bainaiz dozenerdi alta eta dozenerdi baja ematen, horiek 10-12 kontsulta administratibo dira, denbora asko kentzen dutenak. Horiek mutuek egin ditzakete, baina ez dute egiten. Horrek zer dakar? Osasun arreta kolapsatzen dela: une honetan jende asko daukagu konfinatuta eta horietako asko langile aktiboak dira eta horiek lanerako aldi baterako ezintasuna behar dute (baja alegia)”.

Behar beste aztarnari ez egoteak ere sortzen du anbulatorioen kolapsoa: “Egun, aztarnarien lana ia-ia erizainak egiten du. Katarroak, mantarrak, horrelako kontsultak erizainari bideratzen dizkiot, berak antigeno edo PCRak eskatzen ditu eta negatibo edo positibo denaren arabera prozedura ezberdina aktibatzen da. Kate luze bat da, lan karga handia eragiten duena. Aztarnari kopuru egokia egongo balitz, guk ez genuke lan hori egin beharko. Aztarnari lana Lehen Arretatik kenduta, guk osasun arreta ematen zentratu ahalko genuke.

Eta noski, COVID-19a duten gaixoen jarraipena guk egingo genuke”.

MEDIKUEN AGENDAK BLOKEATUTA

Medikuak azaldu du lanez lepo dabiltzan garai honetan, medikuaren agenda askotan medikuak berak kudeatzen duela, horrela administrariari lana kentzeko: “Gaixoaren izena sartzen dut nire agendan, horrela gaixoak ez du deitu behar, berari ez dio inork deituko, gaixoa ez da inongo mostradorera joan behar hitzordu eske... Denbora pila aurrezten da, eta gaixoaren jarraipena ongi egiten da”.

Jarraipena behar duten gaixoen hitzorduak dira medikuak zuzenean agendan sartzen dituenak, ongi ezagutzen baitu bere herritar bakoitzaren beharra: “Adibidez, laneko bajekin, aldi baterako ezintasuna ematen diozu eta hitzordua ematen diozu hurrengo asterako. Edo sintrom bat, ahotikako antikoagulatzaile bat hartzen duenari hurrengo asterako eman nahi diozu hitzordua. Edo bihotz gutxiegitasun akutua bat daukan

pazientea artatzen duzu kontsultan baina nahiago duzu bi egun barru edo datoren astean berriz ikusi”.

Baina abenduaren 13an saiatu zen mediku hau gaixoei hitzordua sartzen bere agendan, eta ikusi zuen agenda blokeatuta zegoela abenduaren 20tik urtarrilaren 10era arte. Ordenagailuak berak esaten dio: “Agenda blokeatuta dago”. Nola ulertu hori? Medikuen hitzetan, “pentsatzekoa da asmoa dela kolapsoa saihestea, baina horrek ikaragarri mugatzen du Lehen Mailako Arreta, medikuak ezin duelako bere agenda antolatu, beraz, kaosa etorriko da eta loteriazko edo ausazko osasun arreta izango dugu: abenduaren 20an goizeko 8etan anbulategira deitu eta berari telefonoa hartzeko zortea duenak hartuko du hitzordua. Eta beste aukera, telefonoz aplikazio informatikoaren bidez txanda hartzea da, baina zaila da eta horrek arrakala digitala sortzen du: koberturak laguntzen dionak eta teknologikoki abila

“

Irisgarritasunik ez badago, gaixoak ezin badu garaiz eta era erraz batean dagokion osasun arreta eskatu, ez dago osasun arretaren kalitaterik. Hori gaixoei harresi handi bat jartzea da”

denak hartuko ditu, eta adinekoek ez dute gazteek bezainbeste gaitasun. Telefonoz deituta edo interneteko aplikazioarekin, bi modutara, oso zaila izango da hitzordua hartzea. Ezingo duzu alde aurretik antolatu, egunean eguneko

izango da. Horri irisgarritasuna deitzen zaio eta kalitatearen oinarrietako bat da. Irisgarritasunik ez badago, hau da, gaixoak ezin badu garaiz eta era erraz batean dagokion osasun arreta eskatu, ez dago osasun arretaren kalitaterik. Hori gaixoei harresi edo muga handi bat jartzea da”.

BI ASTEZ OHIKO ANALISIAK ETENDA, LABORATEGIAK GEHIENBAT COVID TESTENTZAT

“Medikuoi jakinarazi zaigu hurrengo bi asteetan mesedez gaixo kronikoen kontrolerako ohiko analisiak ez egiteko, sistema ez dadin kolapsatu”, iragarri du. PCR edo antígeno test bakoitzak atzetik duen lan katea azaldu du: “Lagin bat analizatzeko behar duzu lagin hori erizain batek ateratzea; lagin hori garraiatzea; eta laborategian teknikariek aztertzea. Hemen ere beste korapilo bat sortzen da, laborategien gaitasuna eta laborategiko teknikarien kopurua



XABIER LETONA

Osasun publikoaren alde borrokan

EAEn, Osasun Publikoaren Aldeko Herri Ekimenak 1.000 erreklamaziotik gora aurkeztu ditu, bereziki Lehen Arreta eta oro har osasungintza publikoa indartzeko eta duintzeko eskatuz. Bestalde, protestak ugaritzen ari dira, Hego Euskal Herrian.

 ERREDAKZIOA / XABIER LETONA BITERI

Abenduaren 14an Osasun Publikoaren Aldeko Herri Ekimenak 1.000 erreklamaziotik gora aurkeztu ditu Donostia-ko Eusko Jaurlaritzako Osasun saillean, bereziki Lehen Arreta eta oro har osasungintza publikoa indartzeko eta duintzeko eskatuz: “Osasun sistema publiko, doako, kalitatezko eta unibertsala bermatzeko beharrezko baliabideak jar ditzala eskatu diogu”. Plataforman parte hartzeko deia zabaldu diete herritarrei.

“Euskal osasun sistema publikoa jasaten ari den narriadura salatu nahi dugu, bereziki Lehen Arretarena. Egunetik egunera gero eta egoera okerragoa bizitzen ari gara langile eta sistemaren erabiltzaile garen herritar guztiok: telefonoak kolapsatuta, pertsona helduen zailtasunak tramiteak web orrialdearen bidez egiteko, hitzorduen atzerapenak, aurrez aurrekoaren murrizketak... egun aurkitzen ditugun arazoetako batzuk besterik ez dira”, azaldu dute plataformako kideek.

Plataformak azaldu duenez, 2008ko krisialditik ari da “narriadura progresiboa” bizitzen Osakidetza. Haien ustez, Gobernuak “pandemiarekin aukera paregabea izan zuen behingoz gauzak ondo egiteko. Aldiz, osasun sistema are gehiago okertzeko aukera gisa baliatu dute. Azken aste hauetako egoera eta positiboen kopuru altua kontuan izanda, bi pandemia urteren ondoren, zaila egiten zaigu pazienteen arretaren planifikazioan eta osasungintzako zerbitzu

eta baliabideen antolaketan hobekuntzarik egin ezin denik sinestea”.

“Frogatuta dago”, berretsi du plataformak, “Lehen Arreta ardatz duen osasun sistemak jendartean osasun maila hobeak eskuratzen dituela. Herritarrentzako seguruagoa da, albo kalte gutxiago eragiten ditu, proba ezbeharrezkoak edota ospitaleko urjentziak ekiditen ditu eta jendartearentzako irisgarriagoa bilakatzen da, gehienbat sektore zaurgarrienentzat”.

“Osasun sistemaren pribatizazioaren aurka posizionatzeko unea da” aldarrikatu du. Pribatizazioa bi bidetatik gertatzen ari dela azaldu dute: “Batetik, bizitzen ari garen narriadura planifikatu honen ondorioz, erabiltzaileak behartu egiten dira seguru pribatuak kontratatzea, jakina den bezala, denon eskuragarri ez dauden seguruetara jotzera, alegia; bestalde, ‘kolaborazio publiko-pribatu’ delakoaren ondorioz, gure osasunerako eskubidearekin negozio ateak irekitzen dituzte, osasun sistemaren hainbat zerbitzu azpikontratatu”.

Bestalde, protestak egiten ari dira han-hemenka. Pasa den astean, Arabako osasun zentroetako langileek protesta egin zuten lantoki atarian, Lehen Mailako Arretako Batzordeko sindikatuak deituta: “Osasun zentroek jasaten duten lan-karga onartezina eta Osakidetza ezarritako neurri berriak” salatua zituzten. “Konponbidea ez da osasun zentroetan asistentziari murrizketak ezartzea, baizik eta giza-baliabideak eta

azpiegiturak areagotzea COVIDaren seigarren olatu honek dakarren jarduera osasun zentroetatik kanpo egin dadin”.

OSASUNBIDEA ERE, LARRI

Nafarroako osasun zentroen aurrean ere egin dituzte mobilizazioak, Nafarroako Osasun Plataformak deituta. Abenduaren 23an onartuko dira foru erkidegoko 2022ko aurrekontuak eta osasun plataformak salatu duenez, diru kontu hauek ez dira nahikoak Nafarroako osasunak gaur egun dituen erronkei aurre egiteko. “Itxaron zerrenda luzeak, zentroetan arreta eskuratzeko zailtasunak, edo etsipena, besteak beste, gaixo askok ez dakitelako nola bideratu haien osasun arazoak. Biztanleria bere osasun zentroetatik kanporatzen ari dira”. Osasunbideako langileek bizi dituzten lan baldintza txarrak ere salatu dituzte, gehiegizko lan-kargak, behin-behinekotasun handia, enpleguaren eze-gonkortasuna, kontziliazio arazoak... “eta deitoragarriena, ez dute osasun agintarien sostengurik”.

Plataformaren ustez, diren gabezia guztien artean nabarmendu behar da oinarritzko osasunaren egoera. Gaur egun Osasunbidearen aurrekontuaren %15 bideratzen da alor horretara eta kopuru hori handitzea ezinbestekotzat jo dute. Nafarroako Gobernua plan bat bideratzen ari da alor honetan azken urtean, baina osasun plataformatik adierazi dutenez, “hitzak besterik ez dira, eta erakutsi dute ez direla gai indarrean jartzeko”. ●

mugatua baita, ez infinitua. Egutero ari bagara PCRak eta antigenoak egiten, horrek ere mugatzen du beste prozedura batzuk egiteko gaitasuna, erizainak eta laborategiko teknikariak horretan burubelarri ari direlako. Arazo hau gainditzeko aukera bat litzateke laborategiko teknikari gehiago kontratatzea”.

“EGUN, EZ DA OHIKO LEHEN MAILAKO ARRETA EGITEN”

“Honen guztiaren ondorioz, ez dugu ohiko Lehen Mailako Arreta egiten. Hau da, gaixo kronikoak artatzea (diabetikoak, hipertentsoak eta abar), gaixotasunaren prebentzioa eta osasunaren sustapena ez dira egiten. Minbiziaren diagnostiko goiztiarra egiteko ere zailtasunak ditugu eta hori oso garrantzitsua da. Horretarako, jendea kontsultara etortzea behar dugu, bere kezkek eta arazoak azaltzera, guk aurrez aurre aztertzea (hori telefonoz ez dagoelako egiterik), eta proba osagarriren bat behar bada eskatzea”, esan du modu mingotsean medikuak.

Konfinamenduaz geroztik kolon ondesteko minbiziaren baheketa etenda egon dela ere azaldu du: “Urtean behin edo bi urtean behin egiten da, 50 urtetik gorakoei, gorotzetan odol ezkutua topatzeko. Laginak hartzen dira eta laborategira bidaltzen dira, eta positiboa bada prozesu bat abiarazten da eta kolonoskopia egiten da. Konfinamendua etorri zenean, banituen hiru gaixo proba horretan positibo eman zutenak eta eten egiten zitzairen eta kolonoskopia hilabete batzuk geroago egin zitzairen. Ez da txantxetako, horrelako baheketa programak hil ala bizikoak dira”.

Honela biribildu du medikuak, telefonoz egin diogun kontsulta: “Egungo egoeran ezin dugu prebentzio lana eta gaixoen jarraipena egin, edo egitekotan, boluntarismotik edo inplikazio handia-

rekin egin behar dugu. Ez dago aztarnaririk, baje prozedura ez da era egokian kudeatu, ez dago kontaktuen jarraipen egokirik denboran... eta honek gainezka egin du. Baina hauek pandemiaren arazo puntualak dira, badira oinarritzkoak diren beste arazo batzuk, pandemia baino askoz lehenagokoak, konpondu ez direnak”.

Aurretik ere eskas baziren, pandemian ezarri duten kudeaketak osasun langileak txikitu egin ditu, fisikoki eta batez ere, psikologikoki

Herritarrei mezu hau helarazi die: “Edozeinek osasun arreta behar duenean, bere ahalegin guztiak eginda lortu behar du bere medikuarekin egotea edo erizainarekin hitz egitea, larrialdia izan edo ez. Izan ere, zer da larrialdia? Txizako infekzio bat, adibidez, mugatzailea da, oso gaiztoa, eta logikoena da osasun arreta behar izatea, eta hori telefonoz konpondu daiteke, antibiotiko bat errezetatuko dizute. Hori ez da larrialdi bat, hori gure eguneroko lana da. Hori ez da ospitalera joateko motiboa, hori familia medikuok egin behar duguna da. Berdin orkatila bihurritu baduzu, gaixotasun kronikoen jarraipena... Edo egun boti-

ken errezetak osasun txartelean egoten dira, eta botika bat jasotzeko epea bukatu bazaizu eta luzatzea behar baduzu medikuarekin hitz egin behar duzu beste epe baterako luzatzeko”. Pandemi edozer justifikatzeko aitzakia izan daitekeela eta herritarren otzantasuna saihestu behar dela ohartarazi du: “Jendeak ez badu protestatzen, desagerraraziko dituzte aurrez aurreko kontsultak espezialistarekin, eta beste hainbat gauza. Jendeak harrituta ikusten du nola dauden Madrilen osasun zentroak, bada Madrilgoa bost urte baino lehenago hemen gertatuko da. Horretara goaz, edo AEBetako eredura, non edo zure lanean duzun osasun mutua bat edo jai daukazu. Osasun publikoa akabatuko dute, zuzenean”.

ERRONKA NAGUSIA, GIZARTEAREN BILAKAERA

“Osasun publikoak duen erronka nagusia, gizartearen bilakaera da. Zahartzen ari den gizartea da Euskal Herrikoa” dio medikuak: “Horrek dakar esponentzialki biderkatzen direla gaixotasunen eta osasun beharren kopuruak. Hipertentsio arteriala 50-60 urtetik aurrera hasten da agertzen, minbiziak batez ere 50-60 urtetik aurrera... Beraz, lehen hainbat pertsona baldin bagenituen morkorreko artrosiarekin ebakuntza behar dutenak, orain bost bider gehiago dira. Berdin bihotzeko eritasunekin... Ez dira halamoduko arazoak, hilgarriak dira, mugatzaileak eta askotan osasun arreta konplexua eskatzen dutenak eta horrek medikuen egunerokoan lan gehiago dakar. Edo berdin etxetik irten ezinda dauden gaixo kronikoekin: gero eta gehiago daude eta adibidez analisiak egiteko erizainek odola ateratzera joan behar badute etxetara, gero eta denbora gehiago behar dute etxetik etxe. Mediku



Basherri
GAIXOTASUN KONTSUMO TALDEA ETA KOOPERATIBA

Elika gaitetzen irazpideak kontuan hartuta eta amalurra zaindus

655709043 | info@basherrisarea.eus



OSASUN PUBLIKOA AURRERA

eta erizainen lankarga biderkatzen ari da gizartearen zahartze prozesuagatik. Hori erronka handia da”.

“MEDIKU ETA ESPEZIALISTEN PLAZAK MADRILEN NEGOZIATZEN DIRA, AHT BEZALA”

Familia mediku honek azaldu digunez, azken urteetako gaitza da osasun publikoan giza baliabideen falta: “Esaten da Espainiako Estatu (eta Hego Euskal Herria bere barnean) dela biztanleko erizain gutxien duen herrialdea Europan, askoz erizain gehiago behar ditugula. Horieta asko kanpoan daude: Katalunian, Mallorcan, Frantzia... Hemen lan baldintzak oso petralak izan direlako. Eta behar beste medikurik ere ez dago eta daudenak zaharrak dira, medikuen batez besteko adina 55-58 urtekoa izango da. Pentsa, urtero 300 inguru mediku erretiratzen dira”.

Baina argi esan du: “Erizain eta mediku gabezia horri aurre egitea erraza da, borondatea badago. Unibertsitatean hasten da osasun langileon ibilbidea; beraz, igo unibertsitatean ikasteko plazen kopurua. Bigarrenik, medikuok karrera amaitzen dugunean MIR azterketa egin behar dugu espezialitatea hautatzeko eta hori Madrilek kudeatzen du. Madrilen negoziatzen dira espezialitateak egiteko plazak edo lanpostuak, Abiadura Handiko Trena negoziatzen den bezala. Hau da, zer behar du EAEk edo zer behar du Nafarroak? Behar hori plazaratu eta horren arabera hainbeste MIR plazak ateratzea negoziatu behar da, handik hiru-lau urtera edukituzagun nahi ditugun espezialistak. Baina azken urteetan hori modu kaotikoan egin da eta ez da benetako plangintzarik egon. Ondorioz, gero eta espezialista gutxiago dauzkagu”.

Askotan entzun dugu ez dagoela medikurik eta erizainik kontratatzen: “Noski, gaur bertan, abenduaren 16an, agian ez. Baina aurrekontuak adostu dira Madrilen, ezta? Adosteko gai bat izan zitekeen datorren maiatzerako sartuko diren MIR hautagai horiek, adibidez, 400 beharrean izan daitezela 600, eta horrela beste 200 mediku gehiago egongo dira lanean datorren urtean. Hori bezain erraza da”.

ZAINTZAILEAK ZAINTZEN EZ DITUEN KUDEAKETA

Pandemiaren aurretik ere eskas baziren osasun publikoko langile kopuruak, pandemian ezarri duten kudeaketak osasun langileak txikitu egin ditu, fisikoki eta batez ere, psikologikoki. “Mediku eta erizain asko bajan daude, bai lan-kargetik eta bai kezketatik eta ardurek izugarritzko ondorioak ekarri dituzte”. Pandemiak osasun langileentzat zekarren lan-kargaren aurrean, epe ertain-luzean iraun ahal izateko moduko lan antolaketak, atsedanak, oporraldiak eta bestelako zaintza bideak aurreikusi beharrean, hauek denak gabe utzi dituzte “urgentziaren” izenean, lanaldi kilometrikoetan, txalo artean heroi bihurtuta. Urteetan luzatzen ari den lan egoera zail horren ondorioak gero eta larriagoak izango dira, medikuak azaldu duenez: “Une honetan Osakidetza langileon osasun mentala oso kaltetuta dago. Jota daude langile asko eta asko, arretra psikiatrikoarekin”. ●



aholkukoop
Fiskala Kontablea Laborala

**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

aholku@aholku.eus - 943 005 680
aholku.eus



TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

San Telmo Museoa

**Konbentzituta gaude museoko
bazkide izatea gauza ona dela**

15€
urte

STM

Remero / Araunlaría, Aurelio Arteta (1930) STM

**Egin orain 2022rako bazkide eta hasi disfrutatzen. Urtarrilera arte gure kontu!
Eman zure babesa museoari, zuk ere irabaziko duzu!**

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
T (00 34) 943 48 15 80
www.santelmomuseoa.eus

@santelmomuseoa



STM
San Telmo Museoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



Hil ala biziko muga Euskal Herrian

Etorkinen parean blindatzen dabil Europa. Kanpoko mugez gain, barneko anitz ditu poliziaz josiak ala zuzenean hetsiak. Tartean, Irun eta Hendaia artekoa. Aitzina egin beharra hil ala bizikoa izanik, haien bizia arriskuan jarritz dabilta milaka immigrante muga zeharkatzen. Gutxienez zazpi dira 2021ean gurean hildakoak. Irungo Udala, Hendaiakoa, Eusko Jaurlaritza eta Euskal Hirigune Elkargoarekin mintzatu gara, drama gehiago ez gertatzeko bideratu beharreko urratsei buruz hausnartzeko xedez. Orriok ilustratuz, Gari Garaialde fotokazetariaren lanarekin gozatzeko aukera du irakurleak.

Tessfit eritreara, 21 urte; Yaya bolikostarra, 28 urte; Abdulaye ginearra 17 urte; bolikostar ezezagun bat, 28 urte; Mohamed, Fayçal, eta hirugarren ezezagun bat, 21, 23 eta 30 urte, hiruak aljeriarrak. Gutxienez zazpi dira 2021ean Irun eta Hendaia arteko muga administratiboa trabeskatzerakoan bizia galdu duten herritarrak. Zazpiak atzerritarak, zazpiak gero hobe baten bila Europara etorriak eta zazpiak Poliziaren kontrolak saihesteko hil ala biziko arriskuak hartzera behartuak.

“Mediterraneoan agerikoa genuen; orain, etorkinen hilerri berria dugu Pirinioen ingurua ere, Italia eta Frantzia arteko mugaren eta Mantxaren gisara”. Claire Rodier juristaren hitzak dira. Epaitegietan bezainbat karrikatik ari da etorkinen eskubideen alde borrokan, immigranteei informazioa eta sustengua bideratzen dabilen Gisti elkartetik eta Europaren migrazio politikak hurbiletik segitzeko sortu zuten Migreurop egituratik.

Irun eta Hendaia arteko errealtateari begira jarri gara, ezer ez bada aldatzen, heriotz gehiago gertatuko direlako: Nolako da gaur egungo errealtatea? Asilo eta migrazio politika Europar Batasunaren eta estatuen esku izanda, zer egiten dute lehen lerroan diren lekuko instituzioek? Zer egiten dute, zer ez dute egiten, eta zer egin dezakete? Maleruski, hitz ederrek ez dituztelako Bidasoako lasterrak eta mendi magalen maldak ezitzen. Galdera horien inguruan aritu gara Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asiloko zuzendari Xabier Legarretarekin, Euskal Hirigune Elkargoan mugaz gaindiko harremanen ardura duen presidenteorde Joseba Erremundegirekin, Hendaia auzapez Kotte Escenarrokekin eta Irungo herriko etxean gehiengoan dagoen hautetsi David Nuñorekin. Irungo Harrera Sareko Josune Mendigutxiarekin ere hitz egin dugu, ongi dakielako muga horretako berri, ia goizero San Juan plazan etorkinekin elkartzen denak.

MUGEN HESTEAK EZ DAKAR MIGRAZIOAREN GELDITZEA...

Abenduko goiz hotz eta lanbrodun honetan hamabost bat gazte kontseilatzen dabilta Harrera Sarekoak: Europako mapan zehazki non gauden erakusten, bide ezberdinen arrisku mailaz informatzen, asiloa eskatzeko prozedura azaltzen, poliziaren parean hartu beharreko jarrera aholkatzen... Egun batzuk lehenago bertan egondako bolikostarra etorri zaie berriro, desesperaturik. Baionan poliziak kontrolaturik, berriro hor dago, muga administratiboaren beste aldean. Mendiz mendi burutu zuen Ipar Euskal Herrirako

KLANDESTINITATEA.

Hiru migratzaile Bidasoa ibaia igarotzen trenbidetik, polizia konturatu gabe.



zeharkaldia. Zenbat orenez egin zuen galdetu eta bi eskuetako atzamar punta guztiak hunkitzen ditu banan-banan: gau guzia pasa zuen mendian oinez.

"Igarobide jakin batzuk oraindik ere itxita egoteak ez du inola ere eragozten pertsona horiek irteteko duten asmoa". Hori irakurri dezakegu Jean-René Etxegarai Euskal Hirigune Elkargoko presidenteari eta Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, azaro bukaeran, bi eskuz idatzitako agirian. Haien "atsekabea" eta "kezkarik handiena" adierazi zuten Bidasoan gertaturiko azken dramaren bihararmunetan. Ez dira ohikoak bi instituzioen arteko adierazpenak, eta hori jada bada arazoaren kontsiderazioaren froga. Iragaitzazko migratzaileentzako "igarotze segurua bermatzea" galdetzen diete Europar Batasunari zein estatu kideei.

Frantziak 2020ko martxoan hetsi zuen Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko muga administratiboa, koronabirusaren izurriarengatik, eta orduz geroztik hetsirik segitzen du, "mehatxu terroristagatik" eta "immigrazio klandestinoak oztopatze-

ko". 2015ko azaroaz geroztik zituen kontrolak areagoturik, arrazoi berengatik. Alta, 1995az geroztik Europaren barnean libreki mugitu daiteke, Schengen espazioari esker. Iraganeko kontua dirudi horrek, norma berria bilakatu delako Schengen araudiak dakarren salbuespena. Hain zuzen, egoera "ezohikoetan" berrezarri daiteke barne-mugen kontrola. Horretan gaude. "Europako Batzordeari bideratu behar zaio salbuespenaren eskaera erregularki, eta izan immigrazio irregularra, terrorismoaren kontrako borroka edota osasun neurri gisa, beti badu aitzaki bat Frantziak. Zirkulazio askatasunaren printzipiorik ez da gehiago Schengen espazioan, eta noski, etorkinek dute gehienik pairatzen mugen kontrola", dio Rodier juristak. Nola ez, Genevako Hitzarmenak bermaturiko ez-itzulketaren printzipioa zangopilaturik da gehienetan, aipatu dugun bolikostarraren lekukotzak frogatzen duen bezala.

Hau da oinarrian dagoen arazo potoloa, eta tokiko instituzioek eragiteko gaitasun gutxi dute, mugen gaineko erabakia

▲ MENDIAN BARRENA.

Ibrahima, Aden, Abdoulaye eta Oumar, lau gazte ginear, muga pasatzeko bide bila.

ez delako haien esku. "Ez da gure esku-mena, gure lurraldean pairatzen ditugun dramen eta herritarren eskaeren bozeramaile gara, baina ez gara entzunak". Hendaiaiko auzapez Escenaroren hitzak dira, eta sentsazio bera da mugaren beste aldean ere: "Espainiak entzuten gaitu, baina beste estatuek ez gaituzte kontuan hartzen; Europak hitz ederrak ditu, baina hitz hutsak dira", Irungo Nuñoren arabera.

Mugak itxita egotearen ondorioetan dugu ere pasatzaileen mafiaren presentzia. Begi-bistakoa da Irunen. Denetarik dago, baina 150 euro inguru balio du Irun-Hendaia muga zeharkatzeak. Baina Rodierrek argi du eta hautetsiek ere bat egiten dute baieztapen honekin: "Pasatzaileak ogi benedikatuak dira Frantzia-



rentzat, haren diskurtso faltsua osatzeko balio diete. Erran gabe doa pasatzaileak hor direla mugak hetsiak direlako".

PRESIONATU BEHARRA

Eskumenik ez ukanik, behintzat erabakiguneetan daudenak presionatzen dabiltzan galdetu die kazetariak. Guztiek baietz, badabiltzala. Eusko Jaurlaritzako Legarretak aipatzen du Beatriz Artolazabal Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak Jose Luis Escrivá Espainiako Gizarte ministroari azaroaren 22an bidalitako gutuna, eta dioenaz "espazio guztiak aprobetxatzen" dabiltza "intzidentzia egiteko". 2018az geroztik bildu ez den autonomia erkidegoen arteko batzordea batzeko eskaera ere luzaturik diote Madrili. Nuño ere bide beretik doa: "Dauzkagun erremintak baliatzen ditugu presioa egiteko, talde gisa komunikabideen aurrean, Eusko Legebiltzarrean gure parlamentarien bidez, gure diputatuen bidez Espainiako Kongresuan eta European ere gure europarlamentariari esker". Idoia Villanueva eurodipu-

tatuak idatzizko eskaera orri bat eman zion abuztuan Barne Gaietarako Europako komisario Ylva Johanssoni, Irun eta Hendaia arteko egoera salatuz. Presioari buruz galdetuz gero, baietzan dabiltza Iparraldekoak ere. Etorkinen heriotzen biharamunetan plazaratu adierazpenak eta agiriak dituzte adibidetzat. Hala ere, "presioa" baino gehiago "interpelazioa" ikusten du kazetariak erantzun hauetan. Interpelazioa modu errepikakorrean eta tematuan egitea litzateke presioa. Ekin-tza konkretu batzuk plazaratzen dituzte, ordea, Erremundegik zein Escenarrok.

EUSKAL ELKARGOAK AZTERKETA JURIDIKO BAT ABIATUKO DU

Etorkinek bidean dituzten polizia kontrolen legezkotasunari buruzko azterketa juridiko bat abiatzekotan du Euskal Hiri-gune Elkargoak. "Kontrol hauek salagarriak eta konstituzioaren kontra joaten direla ondorioztatzeko oinarri juridiko batzuk badirela suposatzen dugu". Hori nahi dute frogatu, helburutzat ukanik bide segurua bermatzea papergabeei:

▲ HERRITARREN SAREAK ITZALEAN LANEAN.

Bi migratzaile emakume beren alaba banarekin ezagutzen ez duten pertsona baten autoan sartzen, muga igarotzen lagunduko diela esan ostean honek.

"Presioa jartzea da urrats juridiko honen helburua. Etorkinek garraio publikoak hartu ahal izatea nahi dugu. Bistan da, autobus berezirik ezin diegu bideratu; arriskutsuegia litzateke, etorkinak poliziari 'oparitzea' litzatekeelako eta elkargoa ere ilegalitatean litzatekeelako. Bide segurua dugu xede. Pausarekin [2018az geroztik bidean dabiltzanek Baionan egun batzuetarako daukaten aterpea] lortu zen adosmen gisako zerbeit; lortu zen Etxegarai engaiatu baitzen eta ardurak hartu baitzituen legetik at -ez ilegalitatean, baina alegialitatean-. Hori ere presio molde bat da".

Escenarrok ere kontatzen du Irungo auzapezari komentatu izana desobediencia ekintza baten proposamena: etor-

TENTSIOA ORDU TXIKIETAN.

Bidasoa ibaiaren ondoan,
muga pasatzeko une
egokiaren zain Afrikatik
etorritako bost herritar, Irunen.







kinekin batera autobus batean sartzea Irungo, Hondarribiko eta Hendaiaiko auzapezak, eta muga zeharkatzea, hedabideei abisua emanik. Baina ideiak ez du asebetetzen: "Noski, ederra legoke argazkia, hiru alkateak eta etorkinak poliziaren eskuetan, baina biharamunean arazoa hein berean genuke. Niri ez zait argazkia interesatzen, arazoak nau hunkitzen". Frantziako Estatuak interpelatu behar dela uste du Hendaiaiko auzapezak, mugaren arazoa Parisen delako erabakitzen: "Oso sinplea eta arrazionala da egin dezakeguna: estatuen interpelazioa. Harreraren ohitura eta tradizioa badauzkagu mugetako herriok, badakigu egiten, baina gaur egungoa ez dijoa hortik". Azaro bukaeran, agiri bateratua idatzi zuten Hendaia, Irun eta Hondarribiko auzapezek "arazoa konpontzeko beharrezkoak diren pausoak ematea" galdetuz Europar Batasunari eta estatu kideei.

BESTERIK EZEAN, HARRERA DUINA

"Noski, ezin diete ilegalki muga zeharkarazi, baina harrera duina eskaini dezakete tokiko instituzioek: aterpea segurtatu, zirkulazioa onartu, laguntza bideratzen

dabiltzan egiturak sostengatu. Bizi zailtasunak doi bat arintzeko balio du horrek guztiak eta bidean zabiltzalarik asko da" juristaren arabera. Gainera, politikoki ere eragina duela dio, Europar Batasunaren politika "bortitz eta eragozgarria" doi bat arintzeko balio duelako. Harrera duina lehentasunetan dute Eusko Jaurlaritzak eta Irungo herriko etxeak eta Erakundearen arteko Koordinazio Mahaiaren baitan kudeatzen dabiltza. Bertan daude Eusko Jaurlaritza, Euskadiko hiru Foru Aldundiak, hiru hiriburuetak, Irungo eta Hondarribiko udalak, Espainiako delegaritza, Ertzaintza, Gurutze Gorria, Cear-Euskadik, SOS arrazakeria eta Munduko Medikuek GKEa. Kontingentzia-plan berezi bat dute landurik, behar izanez gero 500 lagun harrera eskaintzeko azpiegiturarekin.

Legarretarekin hitz egiterakoan, azaroaren 21ean 6.887 immigrante ziren harrera zerbitzu honetatik pasa 2021ean –lehen urtean, 2018an, 5.837 lagun; 2019an, 4.244; 2020ean, 3.493–. Ofizialki, hiru egunetarako lekua ukan dezake etorkinak –guztiak ez, ordea, baldintza batzuk bete behar direlako, tartean, Es-

▲ GAZTETXEA ATERPE.

Irunera iritsi berri den afrikar bat Lakaxita gaztetxean. Herritarren elkartasun sarean leku berezia bete du proiektu honek.

► HERIOTZAREN MUGA.

Yayaren gorpua erreskatatzen suhiltzaileak eta Ertzaintza. 28 urte zituen, Bolikostakoa zen eta polizia kontrolen areagotzeen ondorioz, Bidasoa igerian igarotzen saiatzen ari zela hil zen itota.

painiako Estatuan urte bat baino gutxiago eramatea, bakarrik dagoen adin txikiko ohia ez izatea, ala beste–. Hiru eguneko epea eztabaidagarria da, jakinik muga hertsirik dagoela, eta nahi baina ezin, muga ezin zeharkatuz dabiltzala etorkinak. Immigrantea "modu murriztaile eta kaltegarrian" definitzea leporatzen die instituzioei Irungo Harrera Sareak, dakielako irizpide hauei segi immigrante batzuk karrikan pasatzen dituztela gauak. "Harrera duina? Ez diete denei bideratzen. Ez nabil gezurretan, ez dut horretan interesik; iaz



esan nuen 'txapo!' harrera duina eskaini zitzaielako, baina aurten ezin dut horrelakorik esan". Kritika hau ez du onartzen Legarretak: "Gure errekurtsioetara hel-tzen diren %97,7ak bete du perfila. %2,3 dira bete ez dutenak. Mugatuta gaude Espainiako Gobernuak duelako perfilaz erabakitzen. Eusko Jaurlaritzarengan dauden kritikak ez ditugu ulertzen zeren ondo badakite noren esku den erabakia". Muga administratiboa pasatzen lortzen dutenek Baionako Pausa gunean pasa

ditzakete egun batzuk, indarberritzen, Frantzian barna segitu aitzin.

Erakundeen arteko Koordinazio Mahaian sartu berri da Euskal Hirigune Elkargoa, harrera hobetzeko, informazio partekatze eta koordinazio hobeei esker. Aurten hiru aldiz batu da mahaia, azkenik ekainean, eta ondoko bileraren datarik ez da oraindik jakinarazi. Telefonozko harremana ohikoa badute ere, azken hildakoez ez zuten, dirudienez, parez-pareko topaketa baten beharrik azaleratu.

EUROPAKO BATZORDERA JOTZEKO AUKERA AZTERTZEKO DA

'Hitzarmenen begiralea' da Europako Batzordea, estatu kideen partetik Europako legedia errespetatzen ote den zaintzen duelako. Rodierrek dioenez, behin baino gehiagotan jo dute elkarrekin honen gana, ustez, Frantziak etengabe bideratu mugen kontrolak Schengen espazioko zirkulazio-librea zangopilatzen duelako. Oraingoz, ez dute erantzunik jaso, baina dioenez, "interesgarria" legoke Hendaia



Tinko
euskara elkarteak

Filmen eskaera egiteko:
tinkoeuskara.eus 943 310 036

**2021/2022 ikasturteko
programazioa ikastetxeentzat**







▲ BIDAIAK JARRAITZEN DU.

Dozenaka migratzaile Baionako Pausa aterpetxearen aurrean Tours hirira doan autobusa hartzeaz.

◀ ELKARTASUNAREN KARTOGRAFIA.

Bolondres bat Bidasoako muga non dagoen azaltzen Irunera heldu berri den migratzaile bati.

eta Irun arteko mugaz zuzenean hunkiak diren instituzioek jotzea Europako Batzordera: "Eragin gehiago luke, behintzat politikoki".

Idea hautetsiei komentatu eta baliteke bide hau urratzeko borondatea izatea. Escenarro da argien mintzo: "Elkartee-kin kontzertazioan, Europara joko dugu beharrez. Egoera krudelegia da ezer egin gabe gelditzeko. Auzapezok Europan eragina ukan nahi badugu, anitz izan behar den lekuetan". Nuñok ere dio Justiziaren bidea jorratzen dabiltzala, baina ez du xehetasun gehiago eman nahi ukan.

Elkargoak Frantziako Giza Eskubideen Ligari dei egiteko bidea aipatu zuen ere Erremundegik, estatuak eta Europa presionatzeko bidez aritzerakoan. Legarretak ere dio Frantziako Poliziak bideratu

"kontrol arrazistak" eta kanporaketak "ilegalak" direla, eta gaurko egunean nazioarteko akordioak ez dituela betetzen Frantziako Estatuak, tartean, "Schengen hitzarmenaren gainetik pasatzen" delako. Bide hau seriozki aztertzeak denbora hartu behar dela dio Rodierrek.

Europaren migrazio politikaren ondorio dramatikoak pairatzen ditugu Euskal Herrian ere. *Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan*, izan hautetsi zein herritar, Europaren norabidea aldarazi beharra dago. Bere horretan segitzen badu, errepikatuko direlako bizi hobe baten bila doazen herritarren heriotzak. ●



Justinianoren izurriaren interpretazioak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Konstantinopla, 542ko maiatza. Prokopio Zesareakoaren arabera, bi urte lehenago Etiopian piztutako izurria Bizantziar inperioaren hiriburura iritsi zen. Lau hilabetetan 300.000 hildako eragin omen zituen, hiriko populazioaren erdia inguru. Bizantziar gain, izurri pneumonikoak Europa, Asia eta Afrikako hainbat eskualde hartu zituen eta, guztira, 25-50 milioi pertsona hil ziren horren ondorioz, garai hartako munduko populazioaren %13 eta %26 artean. Horrenbestez, inoizko pandemiarik larrienetakoa izan zen.

Teknologia eta aurkikuntza berriek bertsio hori zalantzan jarri dute azkenaldian. Batetik, ikerketek diote jatorria Txinan izan zuela izurriak. Bestetik, berriki, *Yersinia Pestis* bakterioaren DNA arrastoak ikertuta, jakin dugu izurria Britainiar uhartetara iritsi zela Konstantinoplara baino lehen. Horrek esan nahi du gaixotasuna azkarrago eta bortitzago zabaldu zela iparraldetik, Mediterraneoan baino. Edo, beste modu batera esanda, Bizantziar Inperioan uste baino eragin txikiagoa izan zuela.

Ondorio horretara iritsi zen Jean Durliat historialaria 1989an. Durliaten arabera, oso zaila zen izurriaren azterketa orokorra egitea, eremu geografiko eta kultural zabal eta anitza aztertzea eskatzen zuelako. Durliat bera horretan ahalegindu zen, testuez gain, artelanak eta iturri arkeologiko, epigrafiko, paleografiko eta numismatikoak aztertuz, eta



Justiniano enperadorea eta bere gortea, Ravenako San Vitale elizako mosaikoan. Izurriak haren izena hartu zuen, pandemiak bereziki bere agintaldian Bizantziar Inperioa astindu zuelako.

ondorioztatu zuen izurriak eragindako hondamendia ez zela hainbesterako izan.

Hainbeste iturri aztertzeak dakartzen zailtasunak arindu dituzte teknologia berriek. Azken urteotan, besteak beste bilaketa motorrak erabiliz, izurriak izan zuen pisua neurtu nahi izan dute ikerlariak. Hala, 2019an eta 2020an hainbat ikerlan argitaratu ziren, Durliaten interpretazioarekin bat egiten dutenak: "Garrantzi gutxi-ko" pandemia izan zela esatera iritsi dira, "egungo gripe agerraldien antzekoa".

Berriki, Cambridgeko Unibertsitateko Peter Sarris historialariak beste ikerlan

bat argitaratu du *Past & Present* aldizkarian. Bertan, azken ikerlanen eszeptismoa kritikatu du. Esaterako, bilaketa motorren bidez iturrien kantitatea bai, baina kalitatea ez dela kontuan hartzen adierazi du. "Pandemiak eragina izan zuen egitura sozialetan, baliabide ekonomikoen banaketan eta baita pentsamoldeetan ere. Eta egun hortik asko dugu ikasteko".

Hortaz, oraingoz, aurkikuntza eta datu berriek, zalantza bat argitzen lagundu arren, nagusiki muturreko interpretazioak elikatzeko balio izan dute. ●

Inperioaren txanponak urrun...

Errusian, Tula hiritik gertu brontzezko 140 txanpon erromatar aurkitu dituzte. Beste toki batzuetan askoz multzo handiagoak eta kalitatez hobeak aurkitu izan dituzte. Baina txanponok Inperioaren mugatik 1.000 km-ra aurkitu dituzte, eta gainera, Antiokian eginak dira, Tulatik ia

3.000 km-ra. Horixe da ikerlariak harritu dituen. Kulikovo Pole Museumeko adituek ez dute uste erromatarrek eremu haietan interes komertzialik zutenik eta beste hipotesi bat dute: erromatarrek mugak zaintzeko kontratatzen zituzten merzentario barbaroren baten soldata zela. ●



ERREDAKZIOA



ENERITZ ARZALLUS

Gazteek ARGIA, ARGIAk gazteak

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Praktikaldiak ematen du elkar ezagutzeko aukera ere. Etor-kizuneko kazetariak ofizioan lehen pausoak emateko aukera da, hedabideak eta euren lan egiteko moduak nolakoak diren ikusteko aukera, baita komunikabideek belaunaldi berriak ezagutzeko era ere. Leire Artola hernaniarra da urritik ARGIA-n praktikaldia egiten ari den gaztea. Urtarri-lera arte egongo da gurean. Kontatu digu zertan den, hemendik ateratakoan zer aurkituko duen...

Kazetaritza ikasketak amaitzean da eta lehendik ere eginak ditu beste praktikaldi batzuk; *Berria* egunkarian aritu izan da, eta EHUKo programa baten bidez Guatemalan ere egona da. Prentsa idatzia maite du eta gaur gaurkoz horren bueltan ikusten du bere burua. ARGIA-n praktiketan aritzeko atea zabaldua, ez du aukera galdu nahi izan. "Euskal prentsa idatzian erreferente bat da ARGIA eta ezagutu nahi nuen barrutik, bertan lan egitea nolako den", azaldu digu.

Sarean albisteak sortuz hasten dira ARGIA-n lehen lanak. Galdetzen zaie iritsi berriei ea zer gairekin sentitzen diren eroso, zer den gustuko dutena, eta ahalegintzen dira arlo horretako berriak topatu eta hori lantzerantz bide-

ratzen. "Ni ez naiz gai batean aditua, denetik egitea gustatzen zait, baina jabetzen naiz interesa pizten didate-la gizarte gaiek, Euskal Herriari lotutakoek, euskara ukitzen dutenek, feminismoak", kontatu digu Artolak. Aitortu digu, dena den, nazioarteko gaiak jorratzea ere gustatzen zaio-la: "Lan gehiago ematen dute agian, leku batean gertatzen ari dena jakin eta ulertu ahal izateko jokoan parte hartzen duten beste herrialde batzuen jarrerak ere kontrolatu behar direlako; baina interesgarria da". Baina nondik lortu hau dena ulertzeko informazio fidagarria? "Ari naiz nire iturri bilduma pixkanaka osatzen. Niretzat konfiantzazkoa den jendea sare sozialetan jarraitu eta haiek jartzen dituzten erreferentziei erreparatzen diet", erantzun digu.

Lasarte-Oriako erredakzioan egoten da egunero eta barrutik ezagutu du ARGIAren funtzionamendua. "Harrera oso ona egin didate, gertutasun handia nabaritu dut hasieratik, bat gehiago sentitu naiz eta asko ikasten ari naiz".

Hemendik aurrerakoak denborak erakutsiko ditu, baina honekin beste ate bat ireki du Leire Artolak eta ikasketak amaituta, gogotsu dago prentsa idatzian kolaborazioak egiteko. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Askotariko informazioa jasotzen duelako, bertakoa zein mundukoa, sakontasunez jorratua eta politikoki zuzena denari men egin gabe egina delako; baita irakurlearengan hausnarketarako joera garatzeko balio duelako ere. Gainera, euskaraz irakurtzeko baliabide egokia da"

Atarrabiako Dabid

"Miresten dudalako zuen moduko jendea"

Arrigorriagako Ander

"Asko baloratzen dut egiten duzuen lana. Kalitatezko edukiak, duzuen ikuspegi kritikoa eta batez ere euskararekiko konpromisoa.

Sareetan jarraitzen zaituztet eta zuen proiektua ekonomikoki babestu nahi dut, luzaro iraun dezan!"

Getxoko Jone

"Proiektu polit eta garrantzitsua delako Euskal Herriarentzat eta herritarrentzat"

Hernaniko Manex

"Kazetaritza independentea eta euskalduna babesteko"

Bergarako Ane



SURIK GABE GAR-GAR ERRE



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Aurtengoa bezalako udazken negutiarra kamusada da, etsipena, askorentzat, eta plazer handi bat beste batzuentzat. Aurretik izan duen uda lehor, idor, sikuan ia ihartzeraino elkortu gara, eta azaro edo lehenabendu eta abendu hotz bustiek gauzak bere onera ekarri dituztela iruditzen zait.

Gu animalio mugituz moldatzen gara: hotza bada sutondora; beroa bada abarora; gose edo egarri bagara jan-edanaren bila. Landareek, ordea, bere horretan bizitzen eta irauten ikasia dute: bero sapa, hotz minena, elurtea, egarbera edo gosebera, hantxe egon behar, hantxe bizi behar.

Badira urrutitik ekarritako landareak, gure edertasun egarria berdintzeko eta hiltzeko ibilbidean, inguruan landatzen ditugun bidelagunak. Nongotarrak diren hango klima baldintzetara jarriak egongo dira, eta, hemengo kuadrillako egiten ditugunean, ondo, hobeto edo hola edo hala egokituko dira. Azken finean gu bezalakoak dira landareak. Toki hotzago batetik datorren landarea, ziur aski, ondo moldatuko da gure Euskal Herri epel honetan. Gure amona Barrenetxebekoko Joxepa zenak zioen bezala, "hazi onena urak ekarritakoa da". Hotz handia behar dutenak, or-



Ezpelaren udazkeneko kimu berria.

dea, ezingo dira ondo bizi. Bero handia behar dutenek ere nahikoa lan izango dute. Gure geografiako hotz-bero muturrenakoak bizitzen diren tokietan izan ezean, jakina.

Abiatu berria dugun negu honetan ere makina bat landare sufritzen ariko dira; hezetasunak bustitzen duen hotza hotzagoa da. Galdezka ariko dira bata besteari: Nora ekarri gaituzte?

Kuadrillako landareak hozberak direla sumatzen baduzu ekin azkar, hotzaren kazkaizak sufritu ez ditzan. Ezagutu egin behar ditugu, eta hotzak nor penatuko duen gehien, harekin abiatu. Hotzik handiena gaez izan ohi da, eta gehienetan gaez estaltze soilarekin hotz hori ederki kenduko diogu. Honetarako eskura ditugun materialak erabili: maindire, manta, plastiko, paper... Batzuetan egitura baten gainean jarri beharko da, edo bestela landarea bilduz. Landarea berotzeko beste aukera ona ipurdiaren inguruan edozein hartzigai jartzea da: orbela, simaurra, luarra... Berria bada hobe, gehiago hartzituko du eta denbora gehiagoz berotuko du landarearen ingurua eta batez ere azpian izango dituen sustraia, horiek izoztea eragotziz. Lurgaineko landarea erretzen bada ere, sustraia bizirik badira seguru asko hurrengo izerdialdiarekin landarea berrituko da.

Hurrengo urterako izango bada ere, gogoan izan: uztailez geroztik ez ongarritu hozkilak diren landareak. Ongarriketa udazkeneko, neguko eta udaberriko kontua da; udan kendu lan hori burutik. Beranduko ongarririk kimu berri guriak piztuko ditu eta esku-eskura eskainiko dizkio neguari. Eta hark garrik gabe gar-gar erre. ●



25 urte elikagai
ekologikoak ziurtatzen
Eskerrik asko!

Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Gobernua

CPAEN NNPEK

CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
NAFARROAKO NEKAZAL PRODUKZIO EKOLOGIKOAREN KONTSEILUA



Unión Europea

25 AÑOS | URTE
CPAEN NNPEK

CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
NAFARROAKO NEKAZAL PRODUKZIO EKOLOGIKOAREN KONTSEILUA

EKOLURRA

HURBILEKO PRODUKTU EKOLOGIKOEK BEREIZGARRI BERRIA DUTE EAE-N



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Abenduaren 15ean Ekolurra egitasmoaren aurkezpena egin zuen Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak. Martxan jarri duten bereizgarri berriarekin, pauso bat harago eman eta zigilu ekologikoak Europa mailan jarritako gutxieneko baldintzei beste batzuk gehitu dizkiete. Xabier Lejarzegi Kontseiluko koordinatzaileak azaldu digu Ekolurra bereizgarria zer den.

EKOLURRA: ZER ESAN NAHI DU?

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan kontrol eta zertifikazio lanak egiten dituzte, eta mota askotako enpresei ematen dizkiete zigilu ekologikoari dagozkion baimenak. “Europako ekoizpen ekologikoko zigilua erabiltzeko aukera guk ematen diegu enpresa horiei, baina ikusten genuen hori baino gehiago ere egin genezakeela, eta bertakoari beste balio bat eman geniezaiokeela”, azaldu du Lejarzegik. Eredu ekologikoan egina izatetik harago, bestelako balio batzuk ere jaso dituzte Ekolurraren araudian, hala nola, hurbilekoa izatea.

“Argi ikusten genuen merkatuak bertako ekologikoa nahi zuela, eta kalitateari dagokionez ere, produktu askotan zenbait ezaugarri gehitu ditugu bereizgarriaren araudian”, dio koordinatzaileak. Bestelako hainbat gauza ere kontuan hartuko ditu



Ekolurrak, esaterako, ontziratzeko erabiltzen diren materialak edo abeltzantzan dihardutenen ustiatagietan espezie guztiak ekologikoan izatea. “Europako araudi ekologikoak, adibidez, aukera ematen du ustiategi berean espezie bat ekologikoan izatea eta beste bat konbentzionalean”. Horri buelta eman diote bereizgarriarekin, eta esklusibitatea eskatu diete abeltzainei. Merkaturatzeko zirkuitu laburrei garrantzia ematea bezalako zenbait gomendio ere eman dizkiete bereizgarria duten ekoizle eta eraldatzaileei.

SEKTOREKO ESKAKIZUNEI ERANTZUNEZ

“Egitasmoa abiatzeko beharra sektoreko eragileek sumatzen zuten batez ere”, azal-

du du koordinatzaileak. Kontsumitzaileen eskakizunekin zuzenean lotuta doa sektoreko eragileen eskari hori, dena dela. Izan ere, produktu ekologikoen kontsumitzaileak beste edozein produkturenak baino exigenteagoak direla ikusi dute Kontseiluan. Momentuz, kide guztiek ez dute bereizgarri berria izanen, batzuek ez dituztelako gutxieneko ezaugarriak betetzen.

Ekolurra bereizgarria lortzeko, produktu bakoitzari eskakizun propioak egin dizkiete. “Elaborazio ia guztietan, erabiltzen diren lehengaien erdiak behintzat bertakoa izan beharko du. Baina zenbait jardueratan, ogigintzan esaterako, zenbaki hori jaitsi egin da, bertako irin ekologikoa lortzeko aukera oraindik txikia delako”, amaitu du. ●



HEMEN DAGO NAFARROA



ENERGIA KOLEKTIBOA

PIZTEKO

PERFORMANCE BAT

Aimar Arriola komisarioak eta Sands Murray-Wassink artistak gutun bidez ezagutu zuten elkar. 2020ko ekainetik 2021eko otsailera bitarte, bizipenak eta gogoetak trukatu zituzten, *If I Can't Dance* antolakundearen enkarguz –performancea aztertzen duen erakundea da, eta Amsterdamen dago; bertan bizi da Murray-Wassink–. Azaroan, aldiz, Bilbora etorri zen artista estatubatuarra, Arriola Azkuna Zentroan (AZ) egiten ari den ikerketa-proiektuaren harira. Beren ekitaldi publikoaren bezperan hitz egin genuen biek.



DANELE SARRIUGARTE MOCHALES



DANI BLANCO

Lehen aldiz elkartu zarete aurrez aurre, hainbat hilabetez elkarri kontuak kontatu eta gero. Zer moduz?

Sands Murray-Wassink: Espero bezain ondo. *If I Can't Dance*ko zuzendari Frédérique Bergholtzek enkargua egin zidanean, hiru hautagai proposatu zizkidan. Bi ezagutzen nituen, eta ez nintzen oso ondo moldatzen haiekin; Aimarren izena bilatu nuen Googlen, eta ondo sentitu nintzen berehala. Gauza ezohikoa da niretzat, zeren artearen munduko queer gizonekin ez naiz ondo moldatu oro har. Ez dut esperientzia onik izan komisarioekin, ezta artistekin ere; ez naizela nahikoa maskulinoak iruditzen zaie beharbada, eta niri iruditzen zait haiek misoginoak direla... Harreman zailak izan dira. Aimarrekin, ordea, guztiz bestelakoa izan da. Ez dut alderik nabaritzen gutun eta aurrez aurrekoaren artean.

Aimar Arriola: Hasieran, ni Amsterdamera joatea eta han zuzeneko ekitaldi

bat egitea zen asmoa, baina gero pandemia iritsi zen eta gutun-trukearen ideia sortu zen. Askoz emankorragoa izan da. Lehen hilabeteetan, norbaitekin hasi berri zarenean bezalakoa izan zen: atzera begiratzen dut eta nire buruari galdeztzen diot ea zergatik ari nintzen halako lotsarekin. Baina, bukaera aldera –epe-muga bat geneukan, jakina–, elkarriketaren bete-betea sartuta geunden biok.

Elkarri opariak bidaltzera iritsi zarete.

A. A.: Egia esateko, Sandsek opari gehiago bidali dizkit niri, nik berari baino.

S. M-W.: Opariena gauza orokorra da nire lanean. Nahiago nuke, egia esan, nahi dudana jendeari nire lanak oparitzeagatik ordainduko balidate, bildumazale aberatsei saltzen ibili beharrean. Merkaturak ez zait asko interesatzen, ez diot erabateko ezetz esaten, baina harreman gatazkatsua izan da beti, hainbat arrazoiengatik; besteak beste nire gor-

putza delako nire material nagusia, eta gorputza ez dago salgai.

Artista feministek eragina izan dute bion lanean, gaztetatik.

A. A.: Gutunetan Adelina Moya aipatu nuen, nire irakaslea izan zen Arte Ederren fakultatean, eta inspirazio handia izan zen niretzat. Garai hartan, curriculumean ez zegoen emakume artistatik, baina Moyak hutsune hori orekatzen zuen. Eta uste dut, besteak beste, esperientzia horren bidez konektatu genuela Sandsek eta biok.

S. M-W.: 19 urte nituela, Carolee Schneemann artista ezagutu nuen Pratt Institutuan (Brooklyn, New York), eta horrek erabat aldatu zidan ikuspegia. Gainerakoan, curriculumean ez zegoen arte feministaren historiari. Gradua bukatu gabe, Herbehereetara joan nintzenean egoitza batera, irakasle ia guztiak gizonak ziren, eta arte feminista aipatzen nuenean barre egiten zuten... Duela 20



urte, arte feminista edo queer artea aipatzen nuenean Holandan, irrigarria zela esaten zidaten; orain ikusi behar zenukete nola dagoen kontua, ez dago beste konturik. Aimar, zuk 44 urte dauzkazu eta nik 47, pixka bat zaharragoa naiz, baina zure hezkuntza nirearen antzekoa izango zen ziur aski: nik ez banu Carolee ezagutu, eta zuk ez bazenu zure irakasle horrekin topo egin...

A. A.: Internet aurreko garaietan egin genituen ikasketak bai zuk eta bai nik: jendearen bidez iristen zinen gauzetera, zoriz. Horregatik, prozesuen eta harremanen ideiarri buruz hitz egin dugu gutunetan. Bioi iruditzen zaigu bizitza erlazonala dela: jendearekin, materialekin eta abarrekin dituzun mendekotasunen arabera eraikitzen eta deseraikitzen duzu zure burua. Bagenekien, beraz, harreman berri bat eraikitzeko modu bat dela gutunak idaztea, eta, horretarako...

S. M-W.: Horretarako zabalik egon behar duzu. Bioi iruditzen zaigu zorioneko ezusteko bat dela bi pertsona aurkeztea eta biak zabalik egotea horrelako ahalegin bati heltzeko.

A. A.: Sands oso eskuzabala izan zen gutun-trukearen hasiera-hasieratik. Iruditzen zitzaidan ni ez nengoela maila berean.

S. M-W.: Ba niri pareko samarra iruditzen zitzaidan.

A. A.: Euskaldunon eran, eutsiagoa naiz. Saiatzen nintzen guztia egokitu zedin forma jakin batean. Zuk, berriz, gutunak sartzen zenituen gutunen barruan, eranskinak gehitzen zenituen... Hobeto konpontzen zara oparotasunean ni baino.

S. M-W.: Oso bakarrik egon naiz luza-roan, marjinala izan naiz. 25 urte daramat nire senarrarekin, eta biok bakarrik egon gara tarte horretan guztian. Beraz, arteari buruz elkarriketa bat eduki dezakedala iruditzen zaidan norbaitekin topo egiten dudanean, eztanda egiten dut, hain nago gosetuta! Gu biok gure harremanaren hasieran gaude oraindik, baina oso gogotsu nago.

Gutun-trukea amaitu ostean, Aimar, AZn egiten ari zaren proiektura gonbidatu zenuen Sands.

A. A.: Gutun-trukea bukatu beharra zegoen. Baina iruditzen zitzaidan hari solte ugari geratu zirela, eta horrela sortu zen gonbidapena, gai batzuei segida emateko asmoz. Jarraipen moduko bat izan zen, ez nuen hutsetik azaldu behar izan zer interesatzen zitzaidan. Gutun-



“Bertakoa naiz, baina urte asko egon naiz kanpoan bizitzen, eta proiektu publiko honek aukera eskaintzen zidan kideen komunitate bat sortzeko”

AIMAR ARRIOLA

trukean, formari buruzko auzi batzuk agertu ziren modu xumean, edukiaren eta formaren arteko dikotomia gainditzeko nahi bat. Bestalde, hemengo ikerketa-proiektuan queer desiraren eta formaren arteko gurutzaketa lantzen ari naiz, zabal esanda; beraz, interesgarria zen Sandsen praktika ekartzea halako testuinguru batera, Sandsek estetika formagabearen aukerak lantzen dituelako –forma irekiagoak, narrastasuna forma gisa...– eta gure testuinguruan formarekiko hurbilketa oso lotuta dagoelako eskultura modernoaren tradizio jakin batekin.

Adibide bat jartzeko, perfumeekin lan egiten du Sandsek, eta hori bada halako presentzia ez hain presente bat, ez baitu ikusmenaren eremua okupatzen. Elementu horiek guztiak ekarri nahi nituen.

Nolakoa izango da biharko performancea?

A. A.: Lehenik, hitzaldi moduko bat egingo dugu; Sandsekin batera egongo naiz, aurkeztu egingo dut eta hor egongo naiz badaezpada, ekarpenik behar badu-edo. Ondoren, ekintza bat egongo da, zuzenean margotuko du Sandsek. Interesgarria da, zeren ekitaldi osoari performance deitu diogu, ez “hitzaldia eta performancea”.

Sands, maiz esan izan duzu ez daukazula formaziorik performancearen arloan, baina, horren ondorioz, performanceak izan behar lukeenari buruzko arauak ez zaituzte hainbeste hertsatzen. Ikuspegi askeago bat daukazu.

S. M-W.: Zuzenean margotzen arituko naiz bi orduz, lurrean, A4 neurriko paperetan. 1997an, *Artforum* aldizkarian agertu zen Shahzia Sikanderren irudi bat –erakusketa baten iragarkia–; oso ederra iruditu zitzaidan. Irudi hori birsortu nahi dut nire performancean. Zorua paperez beteta egongo da, eta hor ibiliko naiz margotzen. Zalduak margotzen ditut normalean. Orain dela gutxi hasi naiz, 40 urterekin, ordura arte ez bainuen ausardiarik bildu horretarako. Zalduak, jakina, askatasunarekin eta alderdi basatiarekin lotzen dira, baina genero-zuzenketarekin ere lotuta daude niretzat.

Haurra nintzela, esaten zidaten zalduak eta adarbakarrak neskatoen gauzak zirela. Nire aitona psikoanalista freudiarra zen, eta nire gurasoak bultzatu zituen ni terapiara eramatera, zeren, hiru urte nituela, esan nien ez nintzela mutikoa, neskatoa baizik. Hala, terapiara bidali ninduten, mutikoa izaten ikas nezana; guztiz zentzugabea da, noski: zer da neskato baten haurtzaroa, eta zer mutiko batena? Ezin da jakin. Baina bueno, beste garai batzuk ziren. Esperientzia

traumatikoa izan zen, eta gorroto dut hura gertatu izana, baina orain osatzen saiatzen ari naiz, eta nire lanaren puska handi bat iraganeko trauma eta zauriei heltzeko moduetan datza... Zalduak margotzea traumari aurre egiteko modu eder bat da.

“Duela 20 urte, arte feminista edo queer artea aipatzen nuenean Holandan, irrigarria zela esaten zidaten; orain ikusi behar zenukete nola dagoen kontua, ez dago beste konturik”

SANDS MURRAY-WASSINK

Zer espektatiba daukazue?

S. M-W.: Oso gogotsu nago. Uste dut energia kolektiboa biltzea izango dela gakoa, eta horretan zerikusi handia dute ikus-entzuleek. Guztiok egongo gara elkarrekin espazio horretan, beraz talde-esperientzia bat izan behar luke, zentzurik onenean.

Bestalde, ezin du huts egin. Huts egitearen arte queerrari buruz idatzi izan du Jack Halberstamek, eta liburu irakurri ez dudana arren, guztiz identifikatua sentitzen naiz kontzeptuarekin. Ez baduzu heteroarauaren mailan bizi nahi, ez eta queer arauaren mailan ere, ezein normatibitatearen mailan egia esan,

ezerk ezin du huts egin.

A. A.: Energia kolektiboari buruz esan duzun horri heldu nahi diot. Pandemiaren justu aurretik hasi nintzen AZko proiektuarekin, eta galdetu zidaten ea prest egongo nintzatekeen hasierako planak aldatzeko eta gauzak online egiteko. Kontua da doktore-tesia bukatu berritan nengoela, hura izan zen bost urteko nire konfinamendua, eta gauzak aurrez aurre egin nahi nituen. Gauza gutxiago egin arren, edo beste modu batera, niretzat garrantzitsua zen aurrez aurre egotea. Bertakoa naiz, baina urte asko egon naiz kanpoan bizitzen, eta proiektu publiko honek aukera eskaintzen zidan kideen komunitate bat sortzeko, niri interesatzen zaizkidan gauzei kezkatzen den jendearekin egoteko. Ezinbestekoa iruditzen zitzaidan jendaurreko ekitaldiak egitea, eskala txiki izanda ere. Biharko ekitaldia beteta dago jada, 50 lagun inguru etorriko direla uste dut, eta nire espektatiba horixe da, nolabaiteko energia bat sortzea eta horrek irautea.

S. M-W.: Jendea da gakoa. Gizakiek egiten dute artea, gizakientzat. Artearen munduan sekulako arreta eskaintzen zaie objektuei, eta hori etsigarria iruditzen zait batzuetan, badirudi garrantzitsuagoak direla objektuak, horien atzeko pertsonak baino. Askok interesatzen zait artearen giza alderdia.

Horri dagokionez, askotan esan izan dut bost direla nire lan-materialak: harremanak, portaera, pentsamenduak, sentipenak eta emozioak. Gauza ikusezinak dira denak, baina hori da nire trebetasunen sorta. Artista gisa, tentuz zaintzen dut jendearekiko tratua, ez bakarrik artearen munduan, egunerokoan ere bai. Nahiago dut, abilezia gisa, nire portaerari erreparatu, margotzeari berari baino. ●





LIBURUA

Lehergailuak mundu erabat administratuari



PERU IPARRAGIRRE

SORTALDEKOAK HEDOI ETXARTE

SUSA, 2021

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Nola egin ihes ospitaleek batzuen eta besteen heriotzak administratzen dituzten moduetatik, eta egonkortasunak maitasuna administratzen duen moduetatik. Nola, elizak eta eskuinak administratutako landa eta kaleetatik; eta norbanakoaren administrazio enpresarialetik. Nola, poliziarentzat eta poliziak administratutako kale pribatizatuetatik, eta aurrezki kutxetan eta eskoletan bortxaz administratzen gaituzten moduetatik. Finean, nola egin ihes mundu erabat administratutik eta haren indarkeriatik.


Beste itaun batzuk ere bai, ziur, baina galdera horixe egitera behartu zaitzake *Sortaldekoak* poema liburuak, Hedoi Etxartek hirugarrenez Susarekin argi-

taratu duenak. Bada, lehenengo poema bera jarriko da, jada, erantzunaren bila. Horretarako, oroitzapenen mailetan sartu eta ihesean jarriko zaitu liburuak.

Poema bildumak hortaz, behartu zaitzake galdetzeraz, eta baita harekin sortu diren beste objektu kulturalak ere. *Zerua eta sua* eta *Usozaleak* ikus-entzunezkoek elkarrizketa dute liburuarekin –paperean eta *online* eskuragarri dagoenarekin–. Testuaren izaera diskurtsiboa gainditzeko lana egiten dute bideoetan soinuek eta irudiek, eta oroitzapenen alderdi ez narratiboari egiten diote lekua. Narrazio baten logika lineala gainditzeko duen erretorika eta isiltasunak hitz egiten duten poetika da oroitzapenei egozten zaiena orrietan eta klipetan zehar.

Horrenbestez, poemetako oroitzapenak irakurri daitezke mundu erabat administratuaren arauari gainezka egin bezala. Kolektiboa da norbanakoa, kaosa da ordena, larrua jotzeko dira bankuak eta hilerriak, greba mugagabeak dira festak, merkantziek ez diote erantzuten truke-balioari, eta desirak hartzen ditu gorputzak. Guztia erdigunean dago Merced karrika: isilduen sorlekua eta zapalduen gurutzalekua.

Poema liburuko oroitzapenek beraz, egin lezakete lehergailu lana. Agian, posible da, balantza galarazi diezaioketela mundu erabat administratu honen oinarrien logikei. Lehergailuak badira, egingo ahal dute eztanda. ●



MUSIKA

Bloñ, absurdoaren eta poetikoaren erdian

XALBA RAMIREZ

Urtebeteau lau kapituluko telesaila egitea nahikoa lan ez zela pentsatuta abiatu zen Bloñ proiektua. *Bañolet* telesaila zuzendariak, gidoia, zuzendaritza, produkzioa eta muntaia egiteaz gain, soinu banda egitea deliberratu zuten. Eta soinu bandarekin, diskoa, eta diskoarekin etorriko dira kontzertuak eta saltsa gehiago.

Saltsa zaleak baitira Paxkal Irigoien eta Maia Iribarne, oso-oso zaleak. Lanez lepo zeuden garaian hasi ziren soinu banda konposatzen. Goizetan entseguak, eta arratsaldeetan kapituluaren muntaia, ordenagailu parean. Zentzu horretan, *Bloñ. Bañolet kantuz* plazeretik egin den lana da, bi musikariek natural zaien eremuan.

Abiadura bizian konposatu eta grabatu zituzten kantok, letrak egunean bertan idatziz, estudioan, edo estudioa bidean. Eta hori da harrigarriena. Talde askorentzat urteetako lana izan dena, aste

batzuetan burutu dute baxenabartarrek, Nicolas Armendariz bateria eta Allande Etxeberri baxua lagun.

Estiloa? Popa dela jartzen du Badok web-orrian. Ez dakit, irri egiteko, edo besterik gabe gaur egun dena delako popularra. Edozein kasutan, estilo nahasketak aski aberatsa da, inongo moldetan sartzen ez dena. Hori guztia baxenabartarrek hainbeste maite duten surrealismo gatz puntuak lagunduta. *Arrarokeria* ez al da musika estilo bat?

Kikerak kanta bizkorra, amaieran film baten pausa dramatiko epiko eta guzti. *Han*-en harritu gaitu Ane Garciak kantatutako melodia ederrak –Habiaren *Urre handia*-ra eraman nau hasierak, Pixies-en *Where is my mind?*-era amaierak. *Eihera* kantua, Iribarneren ahots loop trantzearekin. *Erbiak*-en Airbnb-ren homofonia aprobetxatuz: *Erbien bi lagun sutan, bum ba bum ba ba ba bum!*



BLOÑ. BAÑOLET KANTUZ BLOÑ

XOFALDIA PRODUKZIOAK, 2021

“Absurdoa” hitzarekin definitu omen dute telesailaren eta diskoaren espiritua. Jokoetatik abiatuta, beti ere. Absurdoa eta poetikoa nahasten dituztela sentitzen dute. Ezin da hobeto deskribatu jarrerak. Lehen aipatutako *arrarokeria* ez delako, inondik inora, *eusnob* jarrera, handik eta hemendik bereizteko egindako harrokeria, lurreko eta urmaeletako animalia txikiekin, narrastiekin eta gau-tarrekina bat egiteko manifestua baizik.

Iribarne-Olhagaraitarrek urte ederra eman digute. Diabolo Kiwi, Habia eta Bloñ taldeekin urteko hiru disko berezienak kaleratu dituzte Leire eta Maia ahizpek, nork bere bidetik, musikaren iturri zabala hedatuz. 2022ak emango duenaren zain.

P.D.: Badok-en baino ez duzu izango entzuteko aukera, ez spotifyn, ez bandcampen. Edo CD zahar horietako bat eros dezakezu, nonbait topatuko duzu non erreproduzitu. Bide batez, *Bañolet* telesailak 2021eko Durangoko Azokako Sormen Beka irabazi du eta martxoan ikusteko moduan izatea espero da. ●



Maia Iribarne eta Paxkal Irigoien *Bloñ. Bañolet kantuz* diskoaren egileak.



Beldurrari beldurra

 IÑIGO DUARTE-BASAGUREN

Norbaitek oihu egin du gela barruan, oihu buru barruan. Sei pertsona daude eraikin bateko gela eta pasilloetan, elkarrengandik ihesi, bata besteari hizketan. Sei pertsona lehoietatik begira kalera irteten ezinik. Beldurra da ideia eta hitzik errepikatuen *Mugurdiak Lugo*rian izeneko ikus-entzunezko lan honetan. Abenduaren 10ean aurkeztu zuen Iza-ro leregik (Algorta, 1987) *Me cabeza, Me cuello, Te ombligo* erakusketaren barruan, Erromo Kultur Etxean. Ikus-entzunezko lana Vimeo plataformara igo du. Biak ala biak ikusteko aukera egongo da abenduaren 30era arte.

Lan kolektiboa da, partaideen artean mamitua eta osatua. Iza-ro leregik proiektuaren parte ziren lau tailer antolatutako zituen uztailan. Lau saio horietan gorputzari eta beldurrari buruz hausnartu zuten, dantza egin eta partiturak landu zituzten. Lanketa kolektibo horren fruitua da *Mugurdiak Lugo*rian

filma, zeinetan tailerretan parte hartu eta testuak idatzi dituzten sei kideen arteko bakarrizketa eta elkarriketak aurkezten diren. Filmaren ondoren *performance* bat burutu dute erakusketak ikusgai dagoen aretoan bertan. Berriz ere lau-bost gizaki izan ditugu hizketan, bakarrizketan zein elkarriketan. Eta, zeri buruz dihardute sei izaki hauek? Zeri buruz, gela itxi horretan? Beldurraren inguruan, baina ez bakarrik. Haien artean hitz egin dute, baita ikusleari zuzendu ere.

Munduak kolapsatu behar duela dirudien garai hauetan inoiz baino denbora gehiago eman dugu gure buru eta gorputzekin, gure mamu eta beldurrekin. Gure lotsa eta minekin. Horrek guztiak aurrera egitea galarazi digu askotan. Eta aurrera egin nahi dugu, batzuetan geldid egotea aukera bada ere. Gure buru barneko mamuek, gure ni guztiek, gure izaeraren kontraesanak gogorarazten dizkigute. Beldurrik ez dugula diogu-

MUGURDIAK LUGORRIAN

NOIZ: abenduak 10

NON: Erromoko kultur etxea

nean, gure beste ni-etako batek gogoraziko digu guztiok beldur garela. Ausart izan nahi dugunean, lotsaraziko gaituzte. Gure buruarekin gogorregiak izango gara, mundua soilik indartsuenentzat eginda dagoela errepikatuko dugu. Gure baitan daude gure ahulezia guztiak eta gure azalean tatuatuta daramatzagu gure zaurien orbainak, gizartearen indarkeriak gure gorputzen aurka egin duen min guztia. Motxilan sartu ditugu egokitu dizkiguten rolak, exijitzen zaizkigun portaerak eta, askotan, besteen zaborra. Gainerakoan mamuen zama gure egiten dugu.

Hori guztia, eta gehiago, esan digute ikusleoi gela horretatik irteten ezinik zeuden gizakiek. Saihestezina dirudien kolapsoaren aurrean burmuinean ditugun epailei men egitea baino, dantzatzea ere aukera bat dela erakutsi digute. Edo ur gainean egon, gorputzak geldid eta elkarri eskutik hartuta, lasai, ezkatarik dugun arduratu gabe. Oraina biziz. ●



Hitz gezidunak

FUNTZIO TRIGONOME- TRIKO HORNIDURA	ASTINDU RUTE- NIOAREN IKURRA	PERTSO- NAIAREN IZENA			DANI BLANCO	HARRI URTUA JABETZA	ARRISKU BERBA HOTS	ORONOKO AUZOA, BAZTANEN PERTSONAIA- REN ABIZENA
LAMAK PARE BAT	RENIOAREN IKURRA UKUILU, ABELETXE	ERREPIKA- TUZ, LOGURA- REN EULIA NAFARROAKO UDALERRIA			HARIA BILDUZ EGIN- DAKO BOLA KANTITATE, ZENBATEKO	HORI DELA ETA, HORTAZ ZORNE, GAI ZORNETSU	ERABAT BUSTITA IZUGARRIA, APARTEKOA	JAINKO EGIPTOARRA DESESPERA- TUAK
NARRASTA- SUNEZ SEI LAUKIKO POLIEDRO	ESKAERA ITXURA, ANTZA	TEOREMA UGAZTUN HARAGIJALE	ARGAZKI, ERRETRATU SASITZA	ADAR TXIKI ETA MEHEA BALEUKA	DONE DU, HAIEI	500 ERROMA- TARRA NORI ATZIZKIA	NAFARROAKO MENDIZERRA	
IDI HITZ- ELKARKETAN BALAZTA, GALGA	ZUBEROAKO MENDIA ZEIN TOKITAN	SUTE ZIRKO- NIOAREN IKURRA	LAIAN EGITEN DUENA TONA	EGUZKIA				
LEPORATU, AURPEGIRA BOTA GEHITU, ERANTSI								

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	4	6		8				
5	8		7				3	
7		3		4			9	8
	6		4		1	9	8	
	3	4	5		1			
	9		2				4	
3	7			6	5	2	1	4
			8	4				
			1		8	6		

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Gai, gauza.
2. Iritzi, uste.
3. Zaldiaren ostiko.
4. Eragin esangura duen partikula.
5. Kolorerik argiena.

EBAZPENAK

1. KAPAZ
2. ABURU
3. PUTAR
4. ARAZI
5. ZURIA

5x5

4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6
7	8	9	1	2	3
2	3	4	5	6	7
3	4	5	6	7	8
8	9	1	2	3	4
5	6	7	8	9	1
6	7	8	9	1	2
9	1	2	3	4	5

V	I	K	E	U	T	V	R	E	N	I	V	G
I	R	A	I	V	T	I	Z	T	O	G	E	F
D	I	A	D	I	S	U	A	O	N	E	F	R
N	A	S	I	B	B	I	Z	I	T	I	I	
A	Z	O	Z	U	S	T	O	I	O	T	A	B
	T	R	E	T	O	P	E	S	K	E		
V	R	A	V	I	R	O	T	E	O	B	K	U
I	A	B	L	B	I	K	S	A	R	R	A	N
A	L	I	R	V	H	T	R	E		I	B	
Z	V	R	E	B				K	V	U	S	
O	E	G	O	I	V	J			I	N	R	O
Z		P	L						I	K		

Lucía Pàmpols Teixidó

INGURUMENA ALDARRI



AKTIBISMO GOIZTIARRA

"Lucía naiz eta 9 urte ditut. Xaviren arreba naiz, bikiak eta haur goiztiarrak gara, baina lehen unetik laguntzarik gabe arnastu nuen; nire aita borrokalaria naizela dio beti. Corbins ize-neko Lleidako herri txikian bizi naiz. Nire adineko haurrak bezalako neska arrunta naiz eta natura maite dut. Ingurumena niretzat altxor bat da, animaliak eta zuhaitzak ikusten ditudan bitartean aire garbia arnastu ahal izateko gunea, hain zuzen ere. Horregatik bihotzak eta gorputzak eskatzen dit nire esku dagoen guztia egitea, merezi duen bezainbertze zaintzeko planeta".

"Geure burua zaintzeko ezinbertzekoa da planeta zaintzea"

Kataluniako Greta Thunberg goitzenarekin identifikatzen du batek baino gehiagok Lucía Pàmpols Teixidó (Corbins, Katalunia, 2012). Familiarekin txangoak egitean topatutako zikinkeriarekin kezkatuta, Lulú Clean Planet egitasmoa abiatu du, zabor bilketak antolatzeko egitasmoa.

 **SAIOA BALEZTENA**  **DANI CODINA**

Noiz eta nola jaio zen Lulú Clean Planet ekimena?

Duela urtebete, gutxi gora behera. Aitarekin batera mendian txangoak egiten genituenan zikinkeria pila topatzen genuen. Gehiegi. Halako batean zerbait egin behar genuela pentsatu eta aitari proposatu nion ingurumena zaintzeko ekimenen bat sustatzea. Hasieran, aitarekin batera egiten genituen bilketak: txangoa egitera joan eta poltsa batzuk eramaten genituen motxilan zikinkeria biltzeko. Baina, poliki-poliki, konturatu ginen guk egiten genuenarekin ez zela nahikoa, eta harago joatea pentsatu genuen. Hasieran, mugikorrek aplikazio bat sortu nahi genuen, baina garestiegia zenez Instagrameko profila sortzea erabaki genuen. Horrela jaio zen @LuluCleanPlanet. Jende gehiagorengana iristea zen helburu nagusia.

Zeintzuk dira zure erreferenteak?

Egia erran, ez dakit. Tira, Greta Thunberg jarraitzen dut eta egiten duena miresten dut. Bertzalde, ikaragarri gustatu zait Raül Hurtado, José Ibañez eta Claudia Mosquera-ren *Aturem la invasió* liburua, gauza anitz ikasi ditut. Adibidez, bi orduz plastikozko botilak pilatuko bage-

nit u ilargiraino iritsiko ginatekeela jakin nuen. Pentsa!

Ingurumenaren aldeko aktibista zarela erranen zenuke?

Duela gutxi arte ez nekien zer zen aktibista izatea. Baina, hein batean bai, uste dut. Izan ere, gustatzen zaizkidan gauzak egiten ditut planeta zaintzeko ekimenen bitartez, eta ingurumena zaintzearen aldeko kontzientzia areagotzen saiatzen ari naiz. Beraz, bistaritzen ari naiz nire ekarpenik gabe jorratuko ez liratekeen gaiak....

Zenbateraino dago barneratuta zure adineko lagunen artean ingurumena zaintzearen garrantzia?

Bueno, denetarik dago... Erranen nuke gutxi batzuek kontzientzia hartu dutela, baina bertzeek ez. Egia da gelako lagun batzuek parte hartu dutela nik antolatutako bilketetan, babesa eman didate, baina bertze batzuek ez. Eta larriena da gauzak lurrera botatzen jarraitzen dutela... Paso egiten dute!

Eta helduek?

Hemen ere denetarik dago. Erranen nuke gehienak euren burua zain-



"Gure planeta da, beraz, gure etxea izango balitz bezala zaindu beharra dugu. Eta ez gara zaintzen ari".

tzearekin kezkatuago daudela, planeta zaintzearekin baino. Eta nire ustez geure burua zaintzeko ezinbertzekoa da planeta zaintzea, planetarik gabe ezingo garelako bizi.

Eta, zer deritzozu enpresen edo boterea duten pertsonen jarreraz?

Kezkagarria iruditzen zait, plastiko gehiegi sortzen dutelako. Nik kartoizko enbaseak erabiliko nituzke beti...

Nola antolatzen dituzu bilketak?

Hasteko, tokia aukeratzen dugu, zikinkeria aunitz dauden gunek identifikatuz. Gero, bideo bat publikatzen dut Instagramen deialdia iragartzeko; eguna eta ordua zehaztuz. Ondoren, hitzorduan bertan antolatzen gara eta gunea handia bada taldeetan banatzen gara. Zikinkeria guztia bildutakoan materialen bereizketa egiten dugu eta jasotakoa pisatzen dugu. Azkenik, behar den tokian botatzen dugu edo, udalaren babesa badugu, eurei eramaten diegu beraiek botatzeko.

Erakunde publikoen babesik ba al duzu?

Nire familiaren babesa dut beti, eta tarteke, laguntza puntualen bat jaso dugu, bai: bilketaren batean udalak poltsa bat

prestatu du ura eta frutaren batekin eta bilketa egiteko behar dugun materiala erraztuz. Baina, normalean, ez dugu erakunde publikoen babesik izaten eta, beraz, guk antolatzen dugu gure kabuz.

Zenbateraino da garrantzitsua erakunde publikoen konpromisoa ingurumena zaintzerako orduan?

Euren konpromisoa ezinbertzekoa da, zerbaitetarako dira politikari, ezta? Euren dute boterea eta, beraz, eurek kudeatu beharko lukete guk egiten duguna. Planeta pikutara botatzen badugu, ezingo dute boterarik izan, gainera. Tira, ardura euren da eta, beraz, funtsezkoa iruditzen zait ingurumenaren inguruko kontzientziazio honetan erakunde publikoek ere bat egitea.

Nola baloratzen duzu jendearen erantzuna bilketak antolatzen dituzuenear?

Baikorra naiz, jendea animatzen delako. Gainera, bilketa desberdinetan errepikatu duten lagunak ere badaude. Garrantzitsua iruditzen zait hori. Eta biltzen dugunaz gain, erabakigarria ikusten dut kontzientzia sortzen ari garela: gero eta jende gehiagok jarraitzen du egiten duguna eta interesa sumatzen dugu. Gusta-

tzen zait ikustea bilketen ondotik jendea pozik bueltatzen dela etxera.

Irteeraren bat hitzartuta duzue orain?

Egia erran, ez. Nire gurasoek lan anitz dute eta Gabonak iristear direla kontuan hartuz, gehiago. Hala ere, hori gerta zitekeela ikusirik, eta bilketen erritmoa ez gelditzeko, #LuluCleanChallenge egitasmoa sustatu dugu: hainbat eskolatarata gutun bat bidali genuen bilketak egiteko irteerak eurek antolatzeko. Parte hartzen ari diren guztien artean nire gurasoen FESTUC Teatre konpainiaren antzezpen bat zozketatuko dugu.

Zein uste duzu dela planeta zaintzeko erronka nagusia?

Batetik, plastikoa eta zikinkeria gutxiago sortzea. Eta bertzetik, gauzak lurrera ez botatzea eta fabrikek ke gutxiago ateratzeara. Baina, horren gainetik erranen nuke garrantzitsuena dela biztanleriaren artean errespetua berreskuratzea, gainontzekoekin errespetuz jokatzeko badugu ingurumenari ere laguntzen diogulako. Catalunya CleanUp Challenge egitasmoak erraten duen bezala, "ez da gure etxea, baina bai gure planeta". Beraz, gure etxea izango balitz bezala zaindu beharra dugu. Eta ez gara zaintzen ari. ●



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

“Guk geurea!” COVID pasaportea jalgi du herri mugimenduak



Euskal herriak galdu duen espazioa berreskuratzea du helburu ‘Guk geurea!’ pasaportea. “Kalea berreskuratzea nahi dugu”, azaldu digu herritarren plataforma sustatzailearen Habib Irus-ek. “Kalea diogunean, esan nahi dugu tabernak, jatetxeak, zinema aretoak, antzokiak, museoak, kiroldegia, gimnasioak, elizak, ospitaleak, mintzodromoak... barne-espazio guztiak oro har. Bai, bai, hizkuntzarena puntu inpor-

tantea da. Gure pasaportea euskara hutsean egongo da eta, bestalde, QRak dioena berresteko ez da NAN erakutsi beharko, ENA edo EHNA baizik, burujabetzara bidean urrats bat gehiago egiteko. Hemen kristo guztiak debekatzen ditu hau eta beste, gu euskaldunok ere, Europako naziorik zaharrenean, gure hizkuntzan debekuak jasotzeko eskubide unibertsala daukagu eta hori borrokatzea goaz!”. ●

Bizitza moderno



SAREAN ARRANTZATUA



@ANELINDANE | TWITTER



ANTTON HARISPE | FACEBOOK



@MUYBASTXS | TWITTER



@PELLOBA | TWITTER



2022 Ilargia eta landareak
AGENDA
Bilboan, Euzko Herriak, Lurra Herria, Basaia

SENDABELARREK DAKITENA
JARDUNEK J. ARGIA

ETXEKO LANDAREAK
J. ARGIA

ILARGIAREN EGUTEGIA 2022
J. ARGIA

2022
J. ARGIA

TXORI URDINAK
J. ARGIA

Euskal Herriko animaliak
XAPOKETAN PUZZLEA

Bidean
Bilbo Herria

Amul been nit ku leegalul
inor ez da ilegala
ARGIA HIRI MILO MOYE DOOLE ELKARTEA

Amul been nit ku leegalul
inor ez da ilegala
ARGIA HIRI MILO MOYE DOOLE ELKARTEA

LURRA HERRIARI DEIKA
Bilbo Herria

40 €-tik gorako erosketetan, bidalketa doan.

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik
08:00etatik 15:00etara
(beste ordutegiak aurrez kontsultatu).

azoka.argia.eus 943 37 15 45



MIGRAZIORAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA

PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACIÓN



EUSKADIN INOR EZ DAGO SOBERA

Eskerrik asko etortzeagatik

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA
GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES